



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

**EUSKAL KANTAGINTZA LEHEN HEZKUNTZAN: BADOK
ATARITIK ESKOLARA**

Egilea: Gorka Padrones Zulueta

Zuzendaria: Gotzon Ibarretxe Txakartegi

Leioan, 2016ko maiatzaren 26an

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Marko teorikoa	5
1.1. Musika Hezkuntza eta Internet.....	5
1.2. Eredu konstruktibista eta teknologia berriak.....	6
1.3. Euskal abestia Lehen Hezkuntzako curriculumean.....	7
1.4. Euskal kantagintzaren bilakaera.....	8
1.5. Zer da Badok ataria ?.....	10
2. Metodologia	11
2.1. Helburu eta hipotesiak.....	11
2.2. Diseinua eta prozedura.....	12
2.3. Lagina.....	12
3. Emaitzak eta eztabaida	14
3.1. Badok atariaren analisi musikala.....	14
3.2. Euskal diskoen azalen analisia.....	17
3.3. Elkarrizketen analisia eta interpretazioa.....	21
3.4. Hipotesien inguruko eztabaida.....	23
4. Ondorioak eta prospektiba.....	24
4.1. Etorkizunerako proposamenak.....	25
Erreferentzia bibliografikoak	27

ERANSKINAK

1. eranskina. Badok atariaren inguruko datu gehigarriak.....	30
2. eranskina. Diskoen azalen analisia.....	32
3. eranskina. Irakasleei egindako elkarrizketak.....	49

Euskal kantagintza Lehen Hezkuntzan: Badok ataririk eskolara

Gorka Padrones Zulueta

UPV/EHU

Ikerketa lan honen helburua Badok atariak, euskal kantagintzaren bitartez, Lehen Hezkuntzan izan dezakeen erabilgarritasuna aztertzea izan da. Hau honela izanda, Badok atariko material musikalak zein bisualak aztertu ditugu. Honetaz gain, musika eskoletako zein Lehen Hezkuntzako irakasleei egindako elkarrizketen bidez gure ikerketa borobildu dugu. Lan hau paradigma kualitatiboan kokatzen dugu, hain zuzen, metodo etnografikoaren barruan. Ikusi izan dugunez, euskal kantagintzak badu bere presentzia Euskal Herriko musika eskoletan eta ikastoletan. Gainera, irakasleak bat datoz musika hau gure kultura ondarearen parte dela eta eskoletan honen transmisioa eman behar dela esaterako orduan. Lan honetan Badok ataria euskal kantagintza erakusteko eta irakasteko tresna aproposa dela ziurtatzen da.

Euskal kantagintza, Lehen Hezkuntza, Badok ataria, teknologia berriak, Musika Hezkuntza

El objetivo de este trabajo de investigación es estudiar la utilidad que puede tener la canción vasca en la Educación Primaria, a través de la plataforma Badok. Para ello se han examinado los contenidos tanto musicales como visuales que ofrece esta plataforma. Además se han realizado varias entrevistas a diferentes profesores de escuelas de música y Educación Primaria con el fin de redondear el trabajo. Este trabajo de investigación se sitúa dentro del paradigma cualitativo, y para ello se utiliza el método etnográfico. Como hemos podido comprobar, la canción vasca está presente en las diferentes escuelas de música y colegios del País Vasco. Los profesores afirman que esta música forma parte de nuestro patrimonio cultural y que la escuela es un ente importante en la transmisión de ésta. A través de este trabajo se demuestra que el portal Badok es una herramienta adecuada para enseñar y dar a conocer esta música.

Canción vasca, Educación Primaria, Badok ataria, nuevas tecnologías, Educación Musical

The aim of this research is to investigate the utility that the Basque song can have in Primary Education, through the Badok platform. This has been examined both musical and visual content offered by this platform. We have also conducted several interviews with different teachers of music schools and primary education in order to round out the work. This research is within the qualitative paradigm and for this, the ethnographic method. As we have seen, the Basque song is present in different music schools and schools in the Basque Country. Teachers say that this music is part of our cultural heritage and that the school is an important factor in the transmission of this entity. Through this work we demonstrate that Badok portal is an appropriate tool to teach this music.

Basque song, Primary Education, Badok ataria, new technologies, Music Education

Sarrera

Gaur egungo eskoletan, teknologia berriak gero eta pisu gehiago dute. Eskoletan erabiltzen ari diren baliabide berriei esker (ordenagailuak, arbel elektronikoak, tabletak...) ikas-irakaskuntza prozesuak guztiz aldatzen ari dira. Prozesu hauekin batera, edukiak eta metodologiak aldatzen ari dira baita ere. Musika Hezkuntzaren kasuan, teknologia berrien inplantazioak berebiziko garrantzia izan du, batez ere, metodologia eta material berrien sarrerarekin. Hauei esker, musika irakasleoi aukera berriak ireki zaizkigu gure eskolak ematerako orduan. Lan honen bidez, euskal kantagintza eta hezkuntza-munduko teknologia berrien sarrera lotzen dira.

Euskal kantagintzaren esparrua, gure inguruan nahiko ezaguna dela esan dezakegu. Euskal herritarrok ezagutzen ditugu, edo behintzat, noizbait entzun ditugu euskal kantagintzaren errepertorioa osatzen duten abestiak. Hala eta guztiz ere, ikerketa gutxi egin dira euskal kantagintzak eta, batez ere, euskal pop eta rock musikak eskolaren munduan izan ditzakeen erabilgarritasunaren inguruan. Horregatik, gure kulturaren eta historiaren parte den musika honek, Lehen Hezkuntzan izan ditzakeen potentzialitatea bilatzen saiatu gara. Hau guztiori, euskal musikaren ataria den Badok-en bidez aztertu dugu.

Gure lanaren kasuan, hezkuntzaren munduan euskal kantagintzari zer nolako trataera ematen zaion ikertu nahi izan dugu. Honetarako, euskal kantagintzaren ataria den Badok ataria gure lanaren oinarrian egongo da. Hau honela izanda, gure ikerketa-lanaren helburu nagusia Badok atariak Lehen Hezkuntzan izan dezakeen erabilgarritasuna bilatzea izango da.

Lan hau aurrera eramateko, alde batetik, Badok-en aurkitu ditzakegun material desberdinak aztertu ditugu eta, beste alde batetik, gaur egungo musika eskoletan eta Lehen Hezkuntzako geletan euskal kantagintzak zer nolako presentzia duen ikertu dugu. Gainera, euskal kantagintza euskal arte eta kulturako beste hainbat elementurekin lotzen saiatu gara. Beraz, gure lanaren oinarriak euskal kantagintza, teknologia berriak eta hauek, Lehen Hezkuntzaren testuinguruaren barruan kokatzea izango dira.

1. Marko teorikoa

1.1. Musika hezkuntza eta Internet

Gaur egungo curriculumean ikus dezakegunez, Musika Hezkuntza (arte plastikoekin eta ikusizko artearekin batera) Arte Hezkuntza ikasgaiaren barnean sartzen den arloa da. Aldi berean, curriculumean agertzen diren edukien arabera, hezkuntza musikala eremu desberdinetan antolatuta dago. Eremu horiek lengoia musikala, teknika instrumentala, dantza eta kantua dira. Gure gizartean eta aldi berean mendebaldeko kulturaren, oso errotuta dago hezkuntza musikalaren ezarpena eskoletan. Hau honela izanda, musika bera lengoia bezala ulertuta, ikasleen formakuntza artistikoa osatzeko aktibo bat da gaur egun. Honetaz gain, teknologia berriak ere hezkuntza sistemako etapa guztietan zehar ezartzen ari dira, beste aktibo bat bezala. Honen inguruan, Monereok (2005), Internet kritikoak eta selektiboak izaten ikasteko leku aproposa dela baieztatzen du. Interneten bidez parte hartu, komunikatu eta ikas dezakegu.

Musika Hezkuntza, lengoia berri baten hezkuntza bezala ulertzen badugu, mezuak transmititzeko eta igorlearen eta hartzailearen arteko mezuen trukaketa bezala ikusi behar dugu. Zentzu honetan, Gomezek (1990) bere lanean lengoia desberdinak existitzen direla esaten du. Hauen helburua artistikoa zein zientifikoa izan, eskoletan lantzea oso garrantzitsua dela dio. Hainbat funtzio lantzen dira honen bidez: funtzio motorrak, pertzeptiboak eta kognitiboak. Abestiaren kasuan, ekintzaren beraren funtzioaz gain, gainerakoen eta norberaren proiektzioaren pertzeptioa lantzen da, honek dakarren ariketa kognitiboarekin batera. Beste alde batetik, Vilarrek (2004) gizaki guztiek gaitasun musikalak ditugula aipatzen du eta hauen bidez, ekintza musikala ezberdinetan parte hartu dezakegula dio.

Beraz, aurreko ideiak kontuan hartuta, gizakiak izaki musikalak garelako esan dezakegu. Gure gaitasun naturalaren bidez musika ulertzeko, ekoizteko, lantzeko edota disfrutatzekeo gai gara eta honetaz gain, hezkuntzaren bidez musika beste hainbat arlo lantzeko erabili dezakegula argi gelditu da.

Aurrerago esan dugunez, teknologia berriak gero eta pisu handiagoa dute hezkuntzaren munduan. Arte Hezkuntzan eta, aldi berean, Musika Hezkuntzan, teknologia berrien zabalkuntzak metodologiaren eta hezkuntza planteamenduen aldaketak ekarri ditu. Monteagudok (2012) esaten duenez, teknologia berriak bere formatu ezberdinetan (mugikorrak, tabletak, kontsolak...) klasera hurbiltzeak, musika esperientzia berriak

sortarazten ditu. Gainera, irakasle bezala, teknologia berriak erabiltzen ikasi behar ditugula dio; horrela, gure irakaskuntza estrategia hobetu eta aberastu ahal izateko.

Beste alde batetik, Camprubiken (2012) esanetan, musika geletan teknologia berriak erabiltzeari esker, musika, testuak, argazkiak eta bideoak ez ezik, jokoak eta orain arte musika geletara ekartzeko ezinezkoak ziren instrumentuak ere hurbildu daitezke. Ideia honi lotuta, eta aurrerago ikusiko dugunez, Badok atarian aurkitu ditzakegun material ezberdinak oso aberasgarriak izan daitezke Lehen Hezkuntzako musika saioetan erabiltzeko.

1.2. Eredu konstruktibista eta teknologia berriak

Piageten ikaskuntza konstruktibistaren ideia nagusia hurrengoa da: gizakiok ezagutza berriak eskuratzen ditugu, aurretik ikasitakoan oinarrituta edo gure aurrezagutzetan oinarrituta. Hau honela izanda, ikasleek modu aktiboan parte hartu behar dute ikaskuntza prozesuetan haien ezagutza propioa eta esanguratsua eraikiz.

Aurreko ideia kontuan hartuta, ikerketa ugari egin dira teknologia berrien erabilpenak irakaskuntza konstruktibistan izan dezakeen eragina aztertzeko asmoz. Ikerketa hauek ikusi ondoren, ikas-irakaskuntza prozesuetan ordenagailuak erabiltzeak ikasketa esanguratsua emateko aukera gehiago daudela egiaztatu da. Modu berean, ikasleak ikasketa prozesuan konprometitzeko tresna baliagarriak direla konprobatu da. Beste ikerketa batzuk azertu ondoren, irakasle konstruktibistek haien eskolak ematerakoan ordenagailuen erabilera bultzatzen dutela baieztatu dezakegu. Gainera, teknologia berrien erabilpenak komunikazioa errazten du, eta ikasleari bere iritzia azaltzeko aukera ematen dio, iritzi horiek irakurtzeko aukera duten erabiltzaileen zenbatekoa zabalagoa delarik. Halaber, ikasle horrek munduko beste hainbat erabiltzailearen iritzia entzuteko edota irakurtzeko aukera izango du. Azaldutako faktore hauek, ikaskuntza konstruktibista emateko baldintza egokiak dira (Becker, 1998; Salinas, 2008).

Beste ikerketa batzuk, teknologia berrien erabilpenak, irakasleek nola irakasten duten eta zer irakasten duten aldatzeaz gain, haratago heldu behar dela proposatzen dute. Ikertzaileek diotenez, ikas-irakaskuntza prozesua eskuragarri egon diren materialengatik (arbela, arkatza, papera) baldintzatuta egon da. Modu egokian erabili ezker, teknologia berriak ikasleentzat askoz ere erakargarriagoak direla azaltzen dute, honela, ikasketa esanguratsua lortuz (Fuentes, 2007).

1.3. Euskal abestia Lehen Hezkuntzako curriculumean

175/2007ko dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezarri zuen. Honetan ikusten denez, euskal abestiaren bidez oinarrizko gaitasun orokorrak landu daitezke.

Ikasten ikasteko gaitasunari dagokionez, beste arteekin gertatzen den bezala, abestiaren eta kantuaren bidez ikasketa prozesu bat bultzatzen da. Ikasketa prozesu honetan, ikaslea bere prozesua ikertzeko eta planifikatzeko gai izango da. Gainera, aipatutako prozesua ikuspegi kritiko batetik autoebaluatzeko gai izango da. Beste modu batera esanda, kantuaren bidez ikasleak bere ikasketa prozesuaren kontzientzia hartuko du, eta prozesu honetan lortutako ezagutzak, beste ikasgai guztietan erabili ahal izango ditu. Honetaz gain, kantuaren bidez ikasleak bere gorputzaren kontzientzia eta ezagutza hartzen duela esan dezakegu.

Kantuaren eta abestiaren bidez matematikarako gaitasuna lantzen dugu baita ere. Musikaren oinarrizko elementuak, adibidez, denboraren irudikapenak, proportzioak edota bitarteak eta distantziak uneoro lantzen ditugu ariketa ezberdinen bidez. Elementu hauek erlazio zuzena dute matematikarekin, eta musikaren oinarrian elementu edota pentsamendu matematikoa dagoela ezin ukatu.

Beste alde batetik, hizkuntza komunikaziorako gaitasuna ere modu zuzenean landu dezakegu. Abestien bidez lexiko berria eta eraikuntza sintaktiko interesgarriak landu ditzakegu modu zuzenean, eta honetaz gain, gure erkidegoko hizkuntza ofizial biak lantzeko modu aproposa izan daiteke. Gainera, ahots-prestakuntzaren bitartez, mintzamenarekin zerikusia duten hainbat aspektu landu dezakegu, besteak beste, arnasketa, ahoskera eta artikulazioa.

Gure lanaren oinarrian Badok ataria dagoenez, teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna ere lantzen dugu. Honen bidez, ikasleak euskal kulturako arte ekoizpenetara hurreratuko ditugu. Gainera, ez dugu ahaztu behar arte-ekoizpenak gero eta gehiago kontsumitzen direla euskarri teknologikoaren bidez, beraz, arte-gaitasunak eta teknologia-gaitasunak geroz eta lotura estuagoa daukate.

Bestalde, Badok atariak laguntzen digu ere, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lantzen. Ataria euskal musika modernoaren bilduma da, eta hau honela izanda, balio handiko dokumentu historikoak biltzen ditu bere baitan. Honen bidez, euskal musikak, eta aldi berean, euskal gizarteak denboran zehar izan dituen eboluzioa ulertu dezakegu.

Honi lotuta, giza- eta arte-kulturarako gaitasuna lantzen da, batik bat, Euskal Herriko arte-gertaerak kultura baten barnean testuinguratuta ulertzen delako. Ezin dezakegu ulertu euskal musika modernoaren eboluzioa gizarteko balioak, egoera ekonomikoa edota ideologia kontuan hartu gabe. Hau honela izanda, Badok atariak beste garai batzuetako bizimoduetara hurbiltzen gaitu.

Gaitasun orokorrak albo batera utzita, curriculumean aurkitu dezakegu baita ere Arte Hezkuntzaren bidez abestia, kultura eta teknologia biltzen dituzten hainbat helburu. Haien artean aipagarrienak hauexek dira:

- Oro har, ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta oro har herri guztietako ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozaten laguntzea.
- Arte-hizkuntzen teknikek, baliabideen eta arauen oinarritzko ezagutza izatea. Teknlogiek eskaintzen dituzten aukerak ikastea, honela, ekoizpenetan erabili ahal izateko.
- Ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, honela, hainbat kultura eta garaietan izan duen zeregina ulertzeko eta norberaren kultura ondarea ezagutzeko.
- Euskal kultura-ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea.

Aurreko guztia ikusita, Badok ataria, musikaren eta teknologia berrien berriarazko erakargarritasunagatik potentzialtasun handia dauka ikastetxeetan erabiltzeko. Euskal musika ezagutzeko, euskal literatura jorratzeko, euskal kulturaren historian sakontzeko, nahiz giza eta gizarte zientzietarako eta sormen lanetarako tresna oso baliogarria izan daiteke (Badok.info, 2014).

1.4. Euskal kantagintzaren bilakaera

Euskal kantagintza modernoaren hasiera 1961. urtean kokatzen da. Bere kantak magnetofoi batean grabatuta argitaratu ziren momentutik Mixel Labegerieri aitortzen zaio lehen kantari modernoa izatea. Berak ekarritako berritasunen artean bi nagusitzen direla esan dezakegu: batetik gitarra espainola erabiltzen hasi zela abesten zuen bitartean, eta bestetik, euskal nortasunaren ukazioa salatzen zuten kantak ekarri zituela.

60garren hamarkadan euskal kulturak bizi zuen pizkundearen ondorioz, eta Labegerieren bidea jarraituz, 1965ean *Ez dok Amairu* taldea sortu zen. Talde honek euskal kulturako parte ziren artista desberdinak (musikariak, poetak, artistak, dantzariak...) bildu zituen, honela, euskal kantagintza modernizatzeko asmoz. Helburu hau lortzeko, kanpoko tendentzia musikalen eraginez (AEB-ko protesta kantak edota Hego-Amerikako kantagintza) kantu berriak sortu zituzten. Talde honen parte ziren, besteak beste, Mikel Laboa, Xabier Lete edo Benito Lertxundi bezalako musikariak.

70garren hamarkadaren hasieran beste tendentzia bat nagusitu zen euskal kantagintzan: kantautoreak. Garai horretan, diktadura frankista bere azkeneko urteetan zegoen eta aldaketa politiko eta sozialen esperantzak bultzatuta, Pantxoa eta Peio, Gorka Knorr edo Manex Pagola bezalako kantautoreak agertu ziren. Musikari hauek aurrerago aipatutako aldaketen esperantzen bozeramaileak izan ziren. eta garai horretan aurkitu dezakegu, besteak beste, 'Urtxintxa' (Pantxoa eta Peio), 'Guk euskaraz' (Urko) edo 'Bagare' (Gontzal Mendibil eta Xeberri) bezalako abestiak.

Kantautoreen garaia 70garren hamarkadaren amaieran amaitutzat eman daiteke, lehen euskal folk eta rock taldeen sorrerarekin. Garai horretan, diktaturaren amaieran eman zen irekiduraren ondorioz, AEB-ko eta Erresuma Batuko lehen folk eta rock doinuak (Bennett, 2001; Starr, 2007) heldu ziren Euskal Herrira, honela, *Itoiz* edo *Oskorri* bezalako taldeak sortu ziren.

80garren hamarkadan, euskal gizartearen aldaketarekin batera bere eszena musikala ere aldatu egin zen. Langabezi tasaren igoera, drogen kontsumoaren zabalkundeak eta sistemaren aurkako jarrerak eraginda, punk mugimenduak indar ikaragarria hartu zuen Euskal Herrian. Nahiz eta estilo ugari eta bateraezin asko aurkitu garai honetan, guztiak sartu ziren etiketa baten barruan: *Rock Radikal Vasco* (RRV). Mugimendu honek bi ondorio nagusi ekarri zituen: batetik, gaztelania bilakatu zen hizkuntza nagusi, sorturiko talde ia guztiak eremu erdaldunekoak baitziren (*Eskorbuto*, *La Polla Records*, *Barricada*). Bestetik, Euskal Herriko industria musikala asko hasi zen, diskoetxe, irriati libre, fanzine edota gaztetxeen zabalkundearekin. Egoera guzti honen eraginez, diskoen kontsumoa izugarri hasi zen, eta honekin batera kontzertu kopurua ere.

Garai honetakoak dira RRV-rekin zerikusirik izan ez zuten hainbat talde, besteak beste, *La Orquesta Mondragón*, *Platero y Tú* edo *Duncan Dhu*.

Azken hamarkadari dagokionez, nazioartean gertatu den bezala, Euskal Herrian musika-industriaren krisiak eragin handia izan du. Bestalde, Interneten eta teknologia berrien zabalkuntzaren ondorioz, musika zabaltzeko eta kontsumitzeko moduak ere aldatu dira. Honen ondorioz, diskoetxe klasikoek pisua galdu dute, eta autoekoizpenek indarra hartu dute (Eskisabel, 2012; López, 2011).

1.5. Zer da Badok ataria ?

Badok ataria (www.badok.eus) 2009garren urtean *Berria* taldeak sortutako euskal kantagintzaren ataria da. Oinarrian, atariak, euskal kantagintzari buruzko dokumentazio bilgune bat eratu nahi du. Bertan, musikarien eta taldeen biografiak, diskografiaren fitxak, hitzen bilduma, euskal kantagintzaren historiaren laburpena eta kantu lagin bat aurkitu ditzakegu. Atarian azaltzen diren helburu nagusiak euskal musika ezagutaraztea, suspertzea eta transmititzea dira. Azkenik, teknologikoki gaurkotua egotea bilatzen du, teknologia eskaini nahi den zerbitzuaren ardatz delarik. Honen adibide dira *Facebook*-en eta *Twitter*-en dituzten kontuak.

Aurretik aipatutako informazio bilketaz gain, aldizkako eguneraketak ere gehitzen dira plataforma honetan. Bertan, euskal musikaren inguruko albiste eta erreportajeak, elkarrizketak eta musika-ondarea gai duten lanak argitaratzen dira. Honetaz gain, zuzeneko emanaldien inguruko informazioa, eta musikarekin lotura duten lau pertsonen eraturako bloga ere aurki dezakegu. Bloga ekoizten duten lau pertsonak, honako hauek dira: Itsaso Gutierrez, Zuriñe Hidalgo, Juan Gorostidi eta Fermin Etxegoien.

Badok-ek, *streaming* teknologia erabiliz, Interneteko plataforma ezberdinek eskaintzen duten euskal musika ekartzen du atarira. Plataforma hauen artean, *Spotify*, *Youtube*, *Deezer*, *Bandcamp* edota *Soundcloud* aurki ditzakegu. Betiere, musikariek edota diskoetxeek, euren sorkuntzak zabaltzeko erabiltzen dituzten plataformak soilik erabiltzen dira.

Aurretik aipatutako informazio guztia elkarloturik agertzen da, eta musikari edo talde bakoitzak bere espazio propioa du atarian. Honetan, artista honi lotutako diskografia (kronologikoki antolatuta eta erosketarako bideak eskainiz), biografia, bideoak, hitzak eta bere ibilbidea osatzen duten talde erlazionatuak agertuko dira.

Azkenik, esan beharra dago, Interneteko atariaz gain, mugikorretan eta tabletetan erabilgarri dagoen dohainezko aplikazio baten bidez ere eskura daitezkeela Badok-ek eskaintzen dituen zerbitzuak.

2. Metodologia

2.1. Helburu eta hipotesiak

Marko teorikoan esandakoa kontuan hartuz, nire ikerketaren inguruan zehazten ditudan helburuak hauek dira:

Helburu nagusia:

- Badok atariak euskal kantagintzaren bitartez Lehen Hezkuntzan izan dezakeen erabilgarritasuna aztertzea.

Helburu konkretuak:

- Badok atariko materialak aztertzea: musika, irudiak eta euskal arte eta kulturari dagozkionak.
- Euskal kantagintzaren bitartez euskal arte eta kulturako zenbait elementu nola lantzen diren ezagutzea.
- Musika eskoletako egungo errealitatean zer nolako erabilera ematen zaion euskal kantagintzari, batik bat, zein material erabiltzen diren eta hauek nola erabiltzen diren ezagutzea.
- Lehen Hezkuntzan Badok atariari zer nolako tratamendua eman ahal zaion aztertzea (curriculumeko helburu eta gaitasunekin duten erlazioa aztertuz).

Ikerketaren helburuak ezarri ondoren, hona hemen ikerketaren inguruan planteatutako hipotesi desberdinak:

Hipotesiak:

1. Badok atarian euskal abesti ugari aurki ditzakegu, eta neurri txikiago batean, euskal arte eta kulturaren material desberdinak.
2. Euskal kantagintzaren autore eta ekoizpenak ezagutzea garrantzitsua bilakatu daiteke euskal arte eta kulturaren erreferente enblematikoak lantzeko.
3. Euskal kantagintzaren inguruko material eskasia dela eta, honen presentzia musika eskoletan txikia da.
4. Badok atariaren bidez euskal kantagintza eta abestia lantzeaz gain, curriculumeko beste hainbat arlo landu daitezke.

2.2. Diseinua eta prozedura

Ikerketa hau paradigma kualitatiboan sustraituta dago eta, hain zuzen, metodo etnografikoan kokatzen dugu. Nahiz eta ikerketa honetan datuen bilketa eta zenbaketa kuantitatiboa egiten dugun, benetan interesatzen zaiguna datu horien interpretazioa eta izaera kualitatiboa da.

Etnografiari dagokionez, bere sustraiak antropologia kulturalean eta soziologia kualitatiboan kokatzen direla esan behar dugu. Beraz, ikerketa hau etnografikoa den heinean, bere helburu nagusia egoera bat edo kultura baten aurkitu dezakegun eszenario jakin bat deskribatzea izango da (Denzin & Lincoln, 2003; Valles, 2003).

Gure kasuan, Badok atariaren analisi dokumentalean oinarritzen gara eta "etnografia birtuala" esaten zaion horretan, *Lurker* baten papera hartzen dugu. Pertsonai honen eginkizuna ezkutuko behaketa parte-hartzaileak egitea izango da (Hine, 2005). Beraz, paper hau hartu dugula, Badok atarian aurkitzen diren material desberdinak aztertu eta kuantifikatu ditugu, ondoren, Lehen Hezkuntzari begira hauen erabilgarritasuna bilatzeko asmoz.

Beste alde batetik, hezkuntzaren munduan, ikerketa etnografiko baten helburua ikertzen dugun hori barrutik ezagutzea da. Beste modu batera esanda, ikerketa egiterako orduan aurreideia batzuetatik abiatzen gara, eta ondoren, ikerketa gai horretan adituak diren iritziak biltzen dira (Bartolomé, 1997; Woods, 1987; Zaharlick, 1992). Horregatik ikerketa lan hau irakasleei eginiko elkarrizketen bidez borobiltzen dugu.

Elkarrizketa hauek egiteko, gidoi bat diseinatu dugu. Gidoi honetan elkarrizketatuei euskal kantagintzaren inguruan duten ezagutzaz eta formazioaz gain, haien eguneroko jardunean zer nolako presentzia duen eta zertarako erabiltzen duten galdetu zaie. Honetaz gain, Badok ataria gure lanaren oinarrian dagoenez, honen inguruko galdera batzuk egin zaizkie ere.

Amaitzeko, lortutako datuak eta emaitzak interpretatu ditugu eta ondorio batzuetara heldu gara. Honetaz gain, etorkizunari begira proposamen batzuk egiten dira ere.

2.3. Lagina

Ikerketa lan honetan, Badok atariak Lehen Hezkuntzan izan dezakeen erabilgarritasuna bilatzeko asmoz, hiru azterketa desberdin egin ditugu. Alde batetik, atarian bertan aurkitu dezakegun materiala aztertu eta kuantifikatu dugu.

Datu horietako batzuk, gure behaketa eta zenbaketaren bidez lortu ditugu, baina beste batzuk Badok-eko jendeak erraztu dizkigu. Gureak 2016ko otsailean bildu ziren, eta Badok-ek erraztu zizkigunak, berriz, 2015eko irailean. Egoera honek atariak denboran zehar izan duen eboluzioa aztertzeke ere balio izan digu, honela, datu interesgarriak lortuz ere. Azkenik, datu guztiak bildu, antolatu eta interpretatu egin ditugu.

Beste alde batetik, atarian aurkitzen ziren hainbat diskoen azalak aztertu dira. Hauek aukeratzerako orduan zailtasun ugari izan ditugu, batez ere, 50 urtetan zehar musika-ekoizpen ugari egon direlako. Horregatik, musikarien eta artisten arteko erlazioa gordetzen, edota balio artistikoa duten azalak biltzen saiatu gara, honela, Lehen Hezkuntzan erabilgarriak izan daitezten.

Ikerketaren zentzu kualitatiboa gordetzeko asmoz, aukeratutako azalei buruzko euskal musikarien iruzkinak bildu ditugu ere. Iruzkin hauek *Azaletatik sustraietara* liburutik ateratakoak izan dira.

Azkenik, gaur egungo musika eskola zein ikastetxeetan euskal kantagintzari zer nolako espazioa eskaintzen zaion aztertu nahi izan dugu. Honetarako, eremu bateko zein besteko irakasleak elkarrizketatu ditugu.

Ondorengo taulan (1. Taula), elkarrizketatuen profilak aurkezten dira:

Irakaslea	Egindako ikasketak	Esperientzia irakasle gisa	Esperientzia musikala
Esti Arrizabalaga (E.1)	Piano ikasketa profesionalak	25 urtez Bermeoko musika eskolan Lengoaia musikala eta koroa ematen	Koro desberdinen zuzendaria
Haimar Arejita (E.2)	Gitarra klasikoko ikasketa profesionalak, eskolak emateko abilitazioa eta magisteritza musikalean lizentziatua	Gitarra klasiko eta elektrikoko irakaslea Gernikako Segundo Olaeta musika eskolan	Gatibu eta Espaloian taldeko musikaria
Keu Agirretxea (E.3)	Gitarrako eskolak emateko abilitazioa	16 urte gitarra elektrikoko irakaslea gisa hainbat musika eskoletan (Bermeo, Ondarroa, Mendaro, Soraluze)	Hainbat taldetan aritua: Etsaiak, Fjord, Uek, Governors, bakarlarria...

Jon Gurrutxaga (E.4)	Perkusio eta bateriako ikasketa profesionalak, lehen hezkuntzako ikasketak eta kazetaritza lizentziatua	Musikako eskola ezberdinetan irakasle izanikoa eta gaur egun Elgoibarko ikastolako musika, ingelesa eta gaztelaniako irakaslea	Hainbat taldetan aritua: Arima beltza, Uek, Jon & Sugramas, bakarlarria...
Bihotz Fradua (E.5)	Pianoko ikasketa profesionalak eta Musikenen lizentziatua	22 urte daramatza musika eskolak ematen Bermeoko Eleizalde ikastolan	Bermeoko Izaro abesbatzako zuzendaria da

1. Taula. Elkarriketatutako irakasleen profilak

3. Emaitzak eta eztabaida

3.1. Badok atariaren analisi musikala

Badok atariaren aurkezpena egin ondoren, bertan aurkitu dezakegun materiala aztertu eta kuantifikatu dugu. Datu batzuk gure behaketa eta zenbaketaren bidez lortu ditugu, beste batzuk, Badok-eko jendeak erraztu dizkigu. Gureak, 2016ko otsailean bildu ziren eta Badok-ek erraztu zizkigunak berriz, 2015eko irailean. Egoera honek atariak denboran zehar izan duen eboluzioa aztertzeke ere balio izan digu. Azkenik, datu guztiak bildu, antolatu eta interpretatu ditugu Lehen Hezkuntza atariak izan dezakeen erabilgarritasuna bilatzeko asmoz.

Badok atarian nabigatzen hasten garen lehen momentutik bertan material ugari dagoela konturatzen gara. 2016ko otsailean egindako azteketan hurrengo emaitzak lortu genituen:

2016ko otsaila	
Taldeak	546
Estiloak	34
Diskoetxeak	34

2. Taula. 2016ko otsailean Badok ataritik ateratako datuak

Bertan ikusi dezakegunez, atarian aurkitzen diren 546 taldeak 34 estilo ezberdinetan banatzen dira. Egoera honek, gaur egun Euskal Herrian euskaraz egindako musikan dagoen estilo-aniztasunaren seinale da. Euskal musika produktuen aniztasuna eta aberastasuna ez ezik, Euskal Herrian sortu diren eta gaur egun sortzen ari diren produktu musikalak ezagutzeko eta hauekin gozatzeko balio digu. Honi lotuta, esan beharra dago talde kopuru gehien dituzten estiloak Rocka (%19,97) eta Folka (%13,74) direla (1. eranskina).

Gure datuen bilketa egin ondoren, Badok atariarekin jarri ginen harremanetan. Hauek, 2015eko irailean bildu zituzten datuen informea bidali ziguten, eta honen bidez, guk, denboran zehar atariak izan duen tendentzia ikusi ahal izan dugu. Hurrengo taulan, guk bildu ahal izan genituen datuen, eta Badok-eko jendeak bidali zizkigun datuen arteko konparaketa ikus dezakegu (3. Taula).

	2015eko iraila	2016ko otsaila
Taldeak	487	546
Diskoak	2.209	-
Kantak	20.772	-
Estilo kopurua	-	34
Diskoetxeak	32	34

3. Taula. Badok atariko materialaren inguruko datuen arteko konparaketa


Bertan ikus dezakegunez, 2016ko otsailean hutsune batzuk gelditu dira, datu horiek lortzea ezinezkoa egin zitzaigulako. Baina, beste datu batzuen joera ikusita, suposatu dezakegu beste datu guztiek joera berdina jarraituko dutela. Datu hauek, Badok atariak gero eta talde gehiago biltzen ari dela erakusten digute, honela, hauekin lan egiteko aukerak handituz. Gainera, bere datu basea uneoro eraberritzen eta handitzen dagoenez, gaurkotasuna mantentzen du.

Honetaz gain, erabiltzaileen erabilerari lotutako datuak ere lortu ditugu. Hurrengo taulan web orrialdearen eta aplikazioaren arteko datuak biltzen dituen taula dugu (4. Taula).


2015eko iraileko datuak		
	Web orrialdea	Aplikazioa
Saioak	234.988	27.443
Erabiltzaileak	119.796	5.254
Ikusitako orrialdeak	642.277	635.331
Entzunaldiak	375.836	51.434
Deskargak	-	2.536

4. Taula. Web orrialdearen eta aplikazioaren inguruko 2015eko iraileko datuak

Aurrerago aipatu dugunez, atarira bai web orrialdearen bidez, bai mugikorretan deskargatu daitekeen aplikazioaren bidez sartu gaitezke.




1. grafikoa. Badok atarirako saioen iturria




2. grafikoa. iturriaren arabera erabiltzaile kopurua

Biek eskaintzen dituzte zerbitzu berdinak baina hurrengo datuak ikusita erabiltzaileen artean web orrialdearen erabilera zabalduagoa dagoela esan dezakegu (1. grafikoa).


Aipatutako datuetan ikusten denez, entzunaldien %88, web orrialdearen bidez egiten dira. Hau honela izanda, ez da harritzekoa erabiltzaileen %96k web orrialdearen bidez konektatzea (2. grafikoa). Dena den, aplikazioak ibilbide laburragoa izan duela esan beharra dago, baita erabiltzaileak gehitzen ari doazela ere. Entzunaldiei dagokienez, erabiltzaileen %88k web orrialdea erabiltzen duela ikus dezakegu hurrengo grafikoa (3. grafikoa). Orrialde ikustaldiak berriz, berdintsuak dira web orrialdean zein aplikazioan (4. grafikoa).




3. grafikoa. Entzunaldien iturriak ehunekotan



4. grafikoa. Orrialde ikustaldien iturriak ehunekotan




5. grafikoa. Twitterreko jarraitzaile kopurua



6. grafikoa. Facebookeko jarraitzaile kopurua

Sare sozialetako jarraitzaileei erreferentzia egiten dizkioten grafikoei erreparatu, atariak gero eta jarraitzaile gehiago biltzen dituela ikusten dugu (5., 6. eta 7. grafikoak). Beraz, aurrerago esan bezala, gero eta arrakasta gehiago lortzen ari den plataforma dugu hau. Aurretik aipatutako datu guztiak kontuan hartuz, Badok ataria euskal musikaren atari garrantzitsua bihurtu dela ikus daiteke. Euskal kultura musikalaren transmisiorako tresna oso baliogarria dugu, eta honen bidez, gure ondasun musikala hurbildu dezakegu Lehen Hezkuntzako klaseetara. Euskal abestia ez ezik, euskal artea eta batez ere euskal kultura ikasteko, ulertzeko eta transmititzeko ataria dugu.



7. grafikoa. Youtubeko ikustaldi kopurua

Honetaz gain, bere liburutegiaren aniztasunak edozein musika estilo aurkitzea ahalbidetzen digu. Bertan aurki ditzakegun estilo guztietako abestiak euskaraz abestuak dira, beraz, musikaz eta arteaz gain, hizkuntza lantzeko baliogarria ere izan daiteke Badok.


Hau guztiori ikasleen mundutik hurbilago dauden musiken bidez, eta teknologia berrien erabileraren bidez, lortzen dugu. Hau honela izanda, ikasketa erakargarriagoa egiten dugu, eta ikasketa esanguratsua lortzeko aukera gehiago daukagu.

3.2. Euskal diskoen azalen analisia

Ikusi izan dugunez, euskal artisten eta euskal musikarien arteko elkarlana nabaria izan da urte askotan zehar. Denboran zehar elkarlan honek izan duen eboluzioa aztertzeko asmoz, 60ko hamarkadatik hasita eta gaur egun arte egon diren azalak garai ezberdinetan banatu ditugu.

Garaia	Azal kopurua
60ko hamarkada	6
70eko hamarkada	13
80ko hamarkada	11
90eko hamarkada	11
XXI. mendeko lehen hamarkada	9

5. Taula. Garaiaaren arabera aztertutako azal kopurua



8. grafikoa. Aztertutako azalen estiloak (ehunekotan)

Honela, hamarkada bakoitzeko azal kopurua 5. Taulan aurkezten zaigu. Beste alde batetik, nabaria da euskal artistak herri kantarekin izan duten lotura. Izan ere, 8. grafikoak adierazten digunez, aztertutako 50 azaletatik, 33 herri kanta estiloko diskoen azalak dira.

Aipatzekoa da Mikel Laboak euskal artistekin izan duen lotura, hain zuzen, Jose Luis Zumetarekin. Mikelek kaleratutako disko ia guztien azalak Jose Luis Zumetak ekoiztu zituen, eta honen adierazle da aztertutako 50 diskoetatik 10 Mikel Laboarenak izatea. Iñaki Bengoaren (Gose) esanetan, "lankidetzaz horren bidez beste koska bat bilatu zioten azalen kontzeptuari". Bestalde, Josu Zabalak (Hertzainak / 7 Eskale) Euskal Herrian argitaratu diren diskoen azalen artean, Zumetak Laboari egindakoekin gelditzen dela baieztatzen du. Bere ustetan, Zumetak egin zizkion portada guztiak ikaragarriak dira, non, artea kanpotik eta barrutik agertzen den.

Datu orokorrak alde batera utzita, garai bakoitzeko azaletan ikus dezakeguna aztertuko dugu ondoren.

60ko hamarkadan, *Ez Dok Amairu* proiektuak arlo ezberdinetako euskal artistak bildu zituen, haien artean, musikariak eta margolariak. Horregatik, garai honetan azal aipagarrienak proiektu honetan eman zirenak dira. Ikusten denez, *Ez Dok Amairu* proiektuko diskoetako azalak irudikatzen zituen margolaria Martin Romero zen. Bere estiloari erreparatzen badiogu, eredu eta forma minimalistak marrazten dituela esan dezakegu. Bere obretan, arte korrante abangoardisten eragina nabaria da, batez ere, kubismoarena. Honetaz gain, autoreari buruzko informazioa aurkitzeko arazoak daudela esan behar dugu. Garai honetako ekoizpenetan euskalduntasuna aldarrikatzen zen, eta honen adierazle izan daiteke Mixel Labegerieren 'Lehen diskoa'. Disko hau oso garrantzitsua izan zen ikurrina disko bateko azalean agertzen zen lehen aldia izan zelako.



Benito Lertxundi:
Benito Lertxundi, 1968



Mixel Labegerie: Lehen diskoa, 1961

"Mixel Labegerieren harako azal hura, ikurrina duena, beste munduko ezer ez bada ere oso harrigarria izan zen ikurrina bera legez kanpoko zelako...Espainiar gitarra eta ikurrina batera, oso apurtzailea zen". Anjel Valdés (Elkar / IZ / Esan Ozenki / M-ak).

70eko hamarkadaren hasieran oraindik *Ez dok Amairu* proiektuaren hainbat disko aurkitzen dugu. Garai honetan aurki ditzakegu, adibidez, Martin Romerok egindako beste hainbat azal, besteak beste, Maite Idirinen 'Solaitxi' edota *Oskarbirén* 'Abesti zaharrak eta berriak'. Baina, hamarkada honetan nabarmentzekoak izan daitezke Antton Valverderen 'Bertso zaharrak', eta 1978ko 'Bai euskarari' jaialdiko diskoa. Lehenengoaren azala Felix Garridok diseinatu zuen, baina hau, Jorge Oteizaren 'Xenpelar' irudian oinarrituta dago. Bigarren diskoaren azalean, berriz, Nestor Basterretxeak diseinatu zuen irudia ikus dezakegu. Artista bermeotarrak irudi hau diseinatu zuen 1978ko bai euskarari jaialdiko kartela egiteko asmoz.




Antton Valverde: *Bertso zaharrak*, 1974



Askoren artean: *Bai euskarari*, 1978

Ikus dezakegunez, euskal eskultore garrantzitsuen lanak ere islatuta gelditzen dira euskal diskoen azaletan. Batak zein besteak Euskal Herriko eskulturan murgiltzeko aukera ematen digu.

Garai honetan ere, Mikel Laboaren 'Bat-Hiru' diskoa dugu. *Delorean* taldeko Ekhi Lopetegik esaten duen moduan, "inork zalantzan ezin jar lezakeena da Mikel Laboaren 'Bat-Hiru' azala sekulakoa denik".



Mikel Laboa: *Bat-Hiru*, 1974

80ko hamarkadan rockaren leherketa gertatu zen Euskal Herrian. 'Rock Radical Vasco' delakoaren garaia izan zen nagusi, eta horregatik aurkitzen ditugu garai honetan, besteak beste, *Hertzainak*, *Kortatu* zein *Zarama* bezalako taldeen diskoen azalak. Garai honetako diskoen azalak, artistikoki, balio gutxikoak direla esan dezakegu. Honen arrazoiak izan daitezke, adibidez, musikariek baliabide gutxi izatea, musikariek helburu artistikorik ez izatea edota musika kontsumitzaileak harritzeko eginak izatea. Baina, beste alde batetik, azal hauek garai historiko baten isla dira, eta euskal gizarteak izan zuen aldaketa sozialak aurkezten digute. Mezua eta mezu hori transmititzeko moduak aldatu ziren.

Mikel Erentxunek (*Duncan Dhu*) adibidez, aizkolariaren azala duen *Kortaturen* diskoa betidanik txunditu egin duela esaten du. Fermin Muguruzak disko honen diseinuaren inguruan esaten duena: "Nik, biniloak erosten hasi nintzenean, azalez gain barnealdeko libretoetan ere arreta jartzen nuen. Eta horrela egin nuen nik *Kortaturen* lehen disko osoa, testuak nik eskuz idatzita gero komentarioak itsatsi egiten geniola bakoitzari".

'Hertzainak' diskoaren kasuan, bere xumetasunak harritzen du. Honen inguruan hainbat

musikariek esaten dutena:



Kortatu: *Kortatu*, 1985



Hertzainak: *Hertzainak*, 1984

- Ines Osinaga (*Gose*): "Nik markatuta daukat *Hertzainaken* lehen diskaren portada, bere xumetasunak gauza asko esaten duela uste dut".

- Francis (*Doctor Deseo*): "*Hertzainaken* lehena, hain minimalista den izar gorri horrekin, bere soiltasunean zein indartsua den, gero!".

Nahiz eta garai honetako diskoak artistikoki balio gutxiago izan, ikusizko kulturaren mezuak transmititzeko erabili izan diren, eta gaur egun erabiltzen diren moduak eta bideak ulertzeko balio digute.

90eko hamarkadan, oraindik euskal artista zaharren lanak aurki dezakegu, adibidez, Imanolen 'Barne kanta' diskoko azalean. Baina, gero eta ikusgarriago egiten dira garai horretako artista ezberdinen lanak. Honen adibide argia dugu *Balerdi-Balerdi* taldearen diskoaren azala. Disko honen azala Mauro Entrialgo euskal komikigile ezagunak egin zuen. Honen bidez pop-artak edota



Balerdi Balerdi:

Balerdi Balerdi, 1991

komikigintzak euskal diskoen azaletan bere lekua izan dutela argi gelditzen da. Beraz, garai honetan konposizioak egiteko modu ezberdinak ikus daitezke.



Etsaiak: Amen, 1991

Beste alde batetik, *Etsaiak* taldearen 'Amén' azalean azalak egiteko beste modu berri bat azaltzen da. Taldekide den Aitor Ibarrek esaten duenez "gure maketaren azalaren jatorria gure baxu-jole Jokini ikaragarri begitandu zitzaion kartel batetik dator, guda zibileko U.G.T.ren batetik".

Azkenik, XXI. mendeko lehen hamarkadan, teknologia berrien zabalkuntzarekin batera, diskoen azalen autoekoizpenak aipatu behar ditugu. Garai honetan ikusten denez, hainbat taldek baliabide nahikoak dituzte haien diskoen azalak sortzeko.


Gaur egun prozesu guztiaren kontrola duen talde bat *Gose* da. "Sorkuntza prozesua geuk kontrolatzen dugu, gogoko dugunaren eta ez dugunaren errudunak geu gara. Gure diskoek ez dute ez titulurik ez ezer. Kolore jakin batekoak izaten dira. Azala aldarrikatzen dugu!".

Gose: III, 2009



Ken zazpi:

Atzo da bihar,
2001



Askotan, autoekoiztutako azal hauek sinbolismoz beterik heltzen zaizkigu. Hau izan da, askotan, diskoen azalen bidez adierazi nahi izan dena, bigarren zentzu horrekin jokatzeko. Honen adibide izan daiteke *Ken zazpiren* 'Atzo da bihar' diskoa. Talde horretako abeslariak, Eñaut Elorrietak, hurrengo esaten du azal horren inguruan: "Portada horretan jaioberri batzuk agertzen dira nahi genuen hori adierazteko: etorkizuna, itxaropena... Nik uste dut ez genuela guztiz azertatu baina, gu ere jaioberriak ginen".

Honetan ere, ikusi izan dugunez, teknologia berriek eskaintzen duten baliabideei esker sorkuntza prozesuak aldatu dira, eta eskolan ere, azal hauek gure sorkuntza propioak sortzeko pizgarria izan daiteke.

3.3. Elkarrizketen analisisa eta interpretazioa

Hurrengo lerroetan, 5 elkarrizketatuek esandakoa azaltzen eta interpretatzen saiatuko naiz. Elkarrizketatu bakoitza E hizkiaren eta zenbaki baten bidez izendatua izan da. Azterketan zehar, elkarrizketatuek esandakoari erreferentzia egingo diot. Informazio gehiago nahi izanez gero, elkarrizketa osoak eranskinetan aurkitzen dira.

Lortutako informazioa hiru zati nagusitan banatu dut:

1. *Euskal kantagintza lantzeari ematen zaion garrantzia*

Elkarrizketatutako guztiek euskal kantagintza lantzea eta ezagutzea garrantzitsua dela deritzote. Bakoitzak bere arrazoiak ematen ditu baieztapen hau justifikatzerako orduan. Lehenengo eta behin, guztiek norberaren kultura ezagutzea eta transmititzea garrantzitsua dela uste dute. E.2 eta E.5ek, adibidez, euskal kantagintza gure historia ezagutzeko bidea izan daitekeela diote. Ildo beretik jarraiki, Feliúren (2003) esanetan, musika herrikoia kultura da, eta belaunaldiz belaunaldi gertatutakoaren laburpena da.

Beste alde batetik, E.3k eta E.5ek gure musikariak ezagutzea ere oso garrantzitsua dela deritzote. E.3ren esanetan, "gaur egun baditugu internazionalki ezagunak diren taldeak eta musikariak eta honek, mundura zabaltzen gaitu... Askotan kanpora jotzen dugu eta gure inguruan ere kalitatezko musika eta musikariak ditugu".

Azkenik, euskal kantagintza beste hainbat arlo lantzeko erabili daitekeela ikusi dugu ere. E.1ek, adibidez, kanturako ez ezik euskal kantagintza oinarritzat hartzen du beste hainbat aspektu lantzeko (instrumentuak, koreografia, anekdotak...). E.3k eta E.4k

euskararekin lotzen dute. E.5ek, berriz, sormena erabiliz, euskal kantagintzaren bidez curriculumeko edozein aspektu landu dezakegula uste du (hizkuntzak, historia, gizarte).

2. Musika eskoletan euskal kantagintzari ematen zaion tratamendua eta erabiltzen diren materialak

Elkarrizketetan ikusi izan dugunez, euskal kantagintzak badu bere presentzia musika eskoletan. E.1, E.2 eta E.3k, euskal kantagintza irakastea oso garrantzitsua dela diote eta hirurak bat datoz gure kulturaren ezagutza eta transmisioa ematea oso garrantzitsua dela esaten denean.

Euskal kantagintzari ematen zaion tratamenduari dagokionez, E.1ek batez ere kantua arloan erabiltzen dituela ikusi dugu. Gainera, euskal kantagintzaren bidez beste hainbat arlo (koreografia, instrumentuak, letrak, istorioak, antzerkia) lantzen dira. E.2ren kasuan, adibidez, euskal kantagintzako abestiren bat lantzerakoan talde edo abesti horren inguruko ikerketa txikiak egiten dituela dio. Ikerketaren bidez taldearen edo abestiaren inguruko informazio desberdinak (diskoak, historia, testuingurua) biltzen ditu eta erakusten dio ikasleari. Azkenik, E.3k euskal kantagintza eta euskal musikariak asko estimatzen duela ikusi dugu, baina material falta eta bere ikasleen eskariaren eraginez, askorik ez duela lantzen dio. Material falta honen inguruan hainbat ikerketa lanetan esaten dena kontuan har dezakegu: material didaktikoek ez diotela aukera handirik ematen pop musikari. Hala ere, pixkanaka gero eta material gehiago argitaratzen ari da (Campbell, 2004; Ibarretxe, 2007).

Bestalde, E.1, E.2 zein E.3k erabiltzen duten material gehienak sareko web orrialde desberdinen bidez lortzen dituzte. Badok atariari erreferentzia eginez, hirurek ezagutzen dute, eta badakite zer eskaintzen duen, baina beraien eskoletan ez dute erabiltzen.

3. Eskoletan Badok atariari ematen zaion erabilgarritasuna

Lehen Hezkuntzako irakasle diren E.4k eta E.5ek noizbait erabili izan dute Badok ataria. E.4ren kasuan, ikasleekin ikerketa txikiak egiteko erabiltzen du, eta gainera, euskal kantagintzaren aberastasuna ikusteko balio duela dio ere. Bere ustetan, euskal kantagintzaren inguruan lan egiteko oso tresna baliogarria da. Honetaz gain, euskal musikaren bidez curriculumeko beste hainbat arlo landu daitezkeela adierazi digu (hizkuntzak, historia, gizarte).

E.5k kontatu digunez, Badok dezente erabiltzen duen ataria da, eta ikasleei azaldu diez den eta nola erabil dezaketen. Honetaz gain, beste hainbat plataforma erabiltzen ditu. Bere ustez, Euskal Herrian hainbat musika estilo ezberdin euskaraz lantzen direla erakustea ere oso garrantzitsua da. Baieztapen honi lotuta, Choate eta besteek (1967), musika mota guztiak curriculumean sartu beharko lirakeela diote, kulturari, garaiari edota estiloari erreparatu gabe. Dena den, indar gehien duen estiloa momentu bakoitzean gazteriak entzuten duen musika dela diote.

3.4. Hipotesien inguruko eztabaida

Badok atariari buruz hitz egiten dugunean, argi gelditu da euskal musikaren atariak hitz egiten dugula. Bertan euskal musika-ekoizpenak eta honen inguruan mugitzen den informazioa lortu ditzakegu. Aurretik ikusi dugunez, euskal musika eta artea urte luzez eskutik joan dira, eta atarian bertan euskal artistek sorturiko diskoen azal desberdinak aurkitzen dira. Atariaren oinarria musika dela ikusita, eta honen inguruan arte eta kulturaren elementu desberdinak mugitzen direla kontuan hartuz, *1. hipotesia* bete dela esan dezakegu.

Aurretik esandakoari erreferentzia eginez, euskal musikariak eta diziplina desberdinetako artistak urte luzez erlazio estua izan dute. Honen adibide argia izan daiteke Mikel Laboaren eta Jose Luis Zumetaren arteko elkarlana. Gainera, ez dugu ahaztu behar *Ez Dok Amairu* proiektuak diziplina desberdinetako euskal artistak bildu zituela. Honetaz gain, eta irudien azterketan ikusi dugunez, beste hainbat artista ere euskal musikariek noizbait elkarlanean aritu dira, besteak beste, Jorge Oteiza, Eduardo Txillida edo Nestor Basterretxea. Egoera honek *2. hipotesia* baieztatzen eramaten gaitu.

3. hipotesiari dagokionez, elkarrizketetan ikusi izan dugu jardunaren eta adinaren arabera euskal kantagintzaren presentzia eta trataera desberdina dela. Ikusi izan dugunez, adin txikiko ikasleekin, bai lengoia musikaleko irakasgaietan, bai koroetan, euskal kantagintza modu desberdinetan lantzen da. Eskola hauetan, irakasleek euskal kantagintzak bere lekua eta babesa izateaz arduratzen dira, eta honen bidez, musikaren aspektu edo arlo desberdinak lantzen dira (instrumentazioa, koreografiak, letrak, istorioak, erritmoa). Instrumentuen irakaskuntzan, berriz, euskal kantagintzak duen presentzia txikiagoa da, eta honen inguruko material gutxi dagoela adierazi digute. Dena den, jardun honetan ere euskal kantagintzak bere lekua izateaz arduratzen dira. Beraz,

hipotesi honen inguruan, presentzia uste genuena baino handiagoa dela esan behar dugu. Baina, materialen urritasunari buruz hitz egiterako orduan, arrazoia geneukala esan behar dugu.

Azkenik, 4. hipotesia elkarrizketen bidez baieztatu ahal izan dugu. Elkarrizketen interpretazioan ikusi izan dugunez, gaur egun Badok ataria ikastola desberdinetan curriculumeko beste arlo batzuk lantzeko erabiltzen da. Arlo hauen artean hizkuntza, historia edo gizarte zientziak daude. Beraz, hipotesi hau ere baieztatuta gelditu da.

4. Ondorioak eta prospektiba

Burutu dudan ikerketa lan hau egin ondoren, hurrengo ondorioetara heldu naiz:

- Badok atariak euskal kantagintzaren inguruko material ugari biltzen dituela ikusi da, eta geroz eta erabiltzaile gehiago erakartzen dituela ere. Analisi musikalean aurkitu daitezkeen grafikoetan ikus dezakegunez, bere datu basea geroz eta handiagoa da, eta talde eta ekoizpen berrien sarrerarekin batera ataria edukietan aberatsagoa bihurtzen ari da.
- Badok atariak asko lagundu dio euskal kantagintzaren transmisio eta kontserbazioaren lanari. Antzinako euskarazko ekoizpenak ez ezik, gaur egun euskaraz sortzen ari den musika zabaltzen du.
- Euskal kantagintzak badu bere presentzia gaur egungo musika eskoletan zein ikastetxeetan. Elkarrizketatutako irakasle guztiak bat datoz, euskal kantagintzaren transmisioan hezkuntzak paper garrantzitsua duela esaterako orduan. Dena den, euskal kantagintzaren inguruko materialak eskasak dira, eta honek, musika mota hau eskoletan lantzea zailtzen du. Egoera honen aurrean, transmisio hau irakasleen borondateari esker ematen dela esan dezakegu.
- Diziplinarteko ikuskera oinarritzat hartuta, gure musikaren bidez curriculumeko beste hainbat arlo landu ditzakegula argi gelditu da. Musikako edukiak ez ezik, ikusizko kulturaren, hizkuntzaren zein historiaren edukiak landu daitezke euskal kantagintzaren bidez. Gainera, Badok atariak eskaintzen digun zerbitzuei esker, euskal kantagintza modu honetan lantzeko aukera daukagu.
- Euskal kantagintzaren eboluzioa gure historiaren eboluzioaren isla da. Gure musikaren bidez euskal gizarteak historian zehar izan dituen aldaketak uler ditzakegu. 60garren hamarkadatik hona, euskal gizarteak jasan duen eraldaketarekin batera, gure musika ere aldatzen joan da, eta garai

desberdinetako abestiak testuinguruan jarri ezker, garai bakoitzeko gizartea hobeto uler dezakegu.

- Badok atariaren erabilgarritasunari erreparatuz, eskoletan erabili daitekeen tresna didaktiko garrantzitsua bilakatu daiteke. Hala eta guztiz ere, sareko beste hainbat plataforma eta web orrialdeen erabilera ohikoagoa denez (*Youtube*, *Spotify*), bigarren maila batean gelditzen da.
- Euskal Herrian hainbat musika estilo ezberdin euskaraz lantzen direla erakutsi dezakegu atariaren bidez. Modu honetan, ikasleek edozein musika estilo gustuko dutela ere, euskaraz sortu dezaketela ikusiko dute. Beraz, gure musikari proiektzioa emanez gero, euskarari bultzada bat ematen diogula esan dezakegu.

4.1. Etorkizunerako proposamenak

Ikerketa lana egin ondoren, eta honetatik ateratako ondorioak zeintzuk izan diren ikusi eta gero, euskal kantagintzak Lehen Hezkuntzan bere lekua izan dezan nire proposamenak hauek dira:

- Euskal kantagintza lantzerako orduan diziplinarteko ikuspegia kontuan izatea. Honela, musika edukiak eta kasu honetan euskal kantagintzak, beste ikasgai batzuetako edukiak eskuratzen lagundu dezaten. Ikuspegi honek zentzu handiagoa ematen dio irakaskuntza prozesuari. Morinen (1994) esanetan, hezkuntzak ezagutza orokorra sustatu behar du, honela ikuskera globalaz hitz egin ahal izateko.
- Uneoro nazioarteko kantagintzara jo beharrean, eskolan bertan egiten diren ekintza desberdinetan euskal kantagintza sustatzea eta erabiltzea.
- Teknologia berrien erabilera bultzatu Musika Hezkuntza lantzerako orduan, eta hauek eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatu irakaskuntza prozesua hobetzeko asmoz. Zabalak (2005) dioenez, Internet mundua arlo guztietan baliogarria da. Bertako informazio ugaria aztertu ezker, eta eskolan jorrratu nahi duguna argi izanda, informazio hori martxan jartzea posible dugula egiaztatzen du.
- Musika Hezkuntzaren presentzia handitzea Lehen Hezkuntzako curriculumean. Hallamek (2011) esaten duen moduan, astean musika ordu bakarria izanda ezinezkoa da Lehen Hezkuntzako musika-edukiak lantzea.

- Irakasleen formazioan Musika Hezkuntzaren presentzia eta, aldi berean, euskal kantagintzarena hobetzea. Izan ere, unibertsitatean eskaintzen den musika aipamenaren formazioa laburregia eta eskasa dela esan dezaket. Nire ustez, ezinezkoa da musika irakasle bat ongi formatzea lauhilabete batean eta egoera honek, eskoletan bertan eskaintzen den hezkuntza artistikoan eragin zuzena du.

Erreferentzia bibliografikoak

- Badok.info. (2014). Badok: Euskal kulturaren transmisioa, gozamenetik. *Hik Hasi*, 189, 40-41.
- Bartolomé, M. (koord.) (1997). *Diagnóstico a la escuela multicultural*. Barcelona: Cedecs.
- Becker, H. (1998). Teaching, learning and computing: 1998 a national survey of schools and teachers (Inkesta bat da). *EEBBko Hezkuntza Sailak finantziatua*, 2016ko martxoaren 24ean hartuta, hemendik: http://www.crito.uci.edu/tic_home.htm
- Bennett, A. (2001). *Cultures of popular music*. Buckingham: Open University Press.
- Campbell, P. S. (2004). *Teaching music globally: Experiencing music, expressing culture*. New York: Oxford University Press.
- Camprubí, F. (2012). *Entornos e-learning como soporte de aprendizaje a la asignatura de educación musical en primaria*. (Master amaierako lana da). Vic: Universitat de Vic.
- Choate, R. A., Fowler, C. B., Brown, C. E. & Wersen, L. G. (1967). The Tanglewood Symposium: Music in American Society. *Music Educators Journal*, 54, 49-80.
- Denzin, N.K. & Lincoln, Y.S. (2003). *Collecting and interpreting qualitative materials*. Thousand Oaks: Sage.
- Eskisabel, J. (2012). *Euskal kantagintza: pop, rock, folk*. Donostia: Etxepare euskal institutua.
- Eusko Jaurlaritz (2007). *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko 175/2007 Dekretua* (IV. Eranskina: Lehen Hezkuntzako Arloak, Arte Hezkuntza).
- Feliú, V. (2003). *Fiestas y tradiciones cubanas. Centro de investigación y desarrollo de la cultura cubana. Juan Marinello*. La Habana: Festivals.
- Fuentes, M. (2007). Aprender con Internet y las competencias básicas. *Aula de Innovación Educativa*, 165, 41-45.
- Gómez, I. (1990). *Una propuesta curricular para el ciclo medio de la Educación Primaria*. (Doktorego tesia bat da). Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitate autonomoa.
- Hallam, R. (2011). Effective partnership working in music education: Principles and practice. *International journal of music education*, 29 (2), 155-171.

- Ibarretxe, G. (2007). Patricia Shehan Campbell. In, Díaz, M. & Giráldez, A. (koord.), *Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical* (pp. 133-140). Barcelona: Graó.
- Hine, C. (2005). *Virtual Methods: Issues in Social Research on the Internet*. New York: Berg.
- López, E. (2011). *Historia del rock vasco*. Gasteiz: AIANAI edizioak.
- Monereo, C. (koord.) (2005). *Internet y competencias básicas*. Barcelona: Graó.
- Monteagudo, J. (2012): Y Orff se hizo digital: nuevo instrumentarium en el aula de musica del siglo XXI. *Eufonia. Didáctica de la música. 56 zenbakia*. Madrid.
- Morin, E. (1994). *Introducción al pensamiento complejo*. Barcelona: Gedisa.
- Rodríguez, A. eta besteak (2011). *Azaletatik sustraietara. Euskal musikaren azalak 1960-2010*. Bilbo: Emankor sarea.
- Salinas, J., Pérez, A & de Benito, B. (2008). *Metodologías centradas en el alumno para el aprendizaje en red*. Madrid: Síntesis.
- Starr, L. & Waterman, C. (2007). *American popular music*. New York: Oxford University Press.
- Valles, M. S. (1999). *Técnicas cualitativas de investigación social*. Madrid: Síntesis.
- Vilar, M. (2004). Acerca de la educación musical. *Revista Electrónica de LEEME (Lista Europea de Música en la Educación)*, 13, 1-9.
- Woods, P. (1987). *La escuela por dentro. La etnografía de la investigación educativa*. Barcelona: Paidós.
- Zabala, X. (2005). Ordenagailuaren erabilera musika gelan. *Hik Hasi*, 100, 16-17.
- Zaharlick, A. (1992). *Ethnography in anthropology and its value for education. Theory Into Practice*, 31 (2), 116-125.

Webgrafia

- Badok ataria: Berriaren euskal musikaren ataria*. 2016-02-17an hartuta, hemendik: <http://www.badok.eus/>
- Berria aldizkaria: "Badok aplikazioak euskal musika gehiago entzutea ekarriko du"*. 2016-03-07an hartuta, hemendik: http://www.berria.eus/albisteak/106126/badok_aplikazioak_euskal_musika_gehigo_entzutea_ekarriko_du.htm
- Hamaika telebista: Badok ataria eraberritu dute*. 2016-02-19an hartuta, hemendik: <http://www.hamaika.eus/tb/bideo/10002577>

ERANSKINAK


1. ERANSKINA: BADOK ATARIAREN INGURUKO DATU GEHIGARRIAK

Ondoren aurkezten zaizuen taulan (6. taula), Badok atarian aurkitu ditzakegun musika-estilo desberdinak eta hauen maiztasuna ikusi ditzakezue. Bertan agertzen diren datuak, 2016ko otsailean bildutakoak dira:

BADOK ATARIKO MUSIKA ESTILOAK		
Estiloa	Talde kopurua	Ehunekoa
Bluesa	17	2,46
Elektronikoa	20	2,89
Esperimentala	8	1,15
Folk-Rocka	8	1,15
Folka	95	13,74
Hard-Rocka	7	1,01
Hardcorea	21	3,03
Herri kanta	45	6,51
Industrial	2	0,28
Jazza	8	1,15
Kantautorea	18	2,6
Klasikoa	1	0,14
Metala	45	6,51
Plaza	4	0,57
Pop-rocka	52	7,52
Popa	46	6,65
Post-hardcorea	6	0,86
Post-punka	3	0,43
Post-rocka	3	0,43
Punk-Oi!	3	0,43
Punk-rocka	23	3,32
Punka	12	1,73
Rapa	20	2,89
Reggaea	16	2,31
Rock progresiboa	4	0,57
Rock&rolla	17	2,46
Rocka	138	19,97
Runba	2	0,28
Ska	22	3,18
Ska-rocka	5	0,72
Soula	1	0,14
Thrasha	6	0,86
Triki-popa	5	0,72
Trikitia	8	1,15

6. Taula. Badok atarian aurkitu daitezkeen musika estiloak, hauen talde kopurua eta ehunekoa

Hurrengo grafikoan (9. grafikoa) berriz, Badok atariaren sare sozialak 2015eko irailaren eta 2016ko otsailaren artean izan duten eboluzioa ikusi daiteke:



9. grafikoa. Badok atariko sare sozialaren eboluzioa 2015eko irailaren eta 2016ko otsailaren artean

2. ERANSKINA: DISKOEN AZALEN ANALISIA



- **Bakarlaria/Taldea:** Mixel Labeguerie
- **Diskoaren izenburua:** Lehen diskoa
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1961
- **Azalaren egilea:** M. Hiribarren
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Ikurrina disko baten azalean agertzen den lehen aldia
 - Kutsu politikoa
 - Ikurrinaren koloreak nagusi




- **Bakarlaria/Taldea:** Benito Lertxundi
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1968
- **Azalaren egilea:** Martin Romero
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Txalupak agertzen dira
 - Egileak "Ez Dok Amairu" proiektuko hainbat disketako azalak egin ditu
 - Kolore gutxi
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informaziorik



- **Bakarlaria/Taldea:** Julian Lekuona
- **Diskoaren izenburua:** Julian Lekuona
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1968
- **Azalaren egilea:** Martin Romero
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Autore honek "Ez Dok Amairu" proiektuko hainbat disketako azalak egin ditu
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informaziorik



- **Bakarlarria/Taldea:** Antxon Valverde
- **Diskoaren izenburua:** Antxon Valverde
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1969
- **Azalaren egilea:** Antonio Valverde "Ayalde"
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Irudi eta forma sinpleak
 - Ezinezkoa da bereiztea zer irudikatu nahi den



- **Bakarlarria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Haika Mutil
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1969
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlarria/Taldea:** Xabier Lete
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1969
- **Azalaren egilea:** Martin Romero
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Autore honek "Ez Dok Amairu" proiektuko hainbat disketako azalak egin ditu
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informaziorik
 - Irudi sinpleak eta kolore gutxikoak izaten dira



- **Bakarlaria/Taldea:** Maite Idirin
- **Diskoaren izenburua:** Solaitxi
- **Estiloa:** Herri kanta, Klasikoa
- **Urtea:** 1970
- **Azalaren egilea:** Martin Romero eta Michele Iraregi (azala)
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Autore honek "Ez Dok Amairu" proiektuko hainbat disketako azalak egin ditu
 - Kolore gutxi erabiltzen dira eta txori baten marrazkia ikusi dezakegu
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informazioa



- **Bakarlaria/Taldea:** Oskarbi
- **Diskoaren izenburua:** Abesti Zaharrak eta Berriak
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1970
- **Azalaren egilea:** Martin Romero
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Autore honek "Ez Dok Amairu" proiektuko hainbat disketako azalak egin ditu
 - Kubismoaren eragina ikusi daiteke bere estiloan
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informaziorik



- **Bakarlaria/Taldea:** Benito Lertxundi
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1970
- **Azalaren egilea:** Martin Romero
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Formak sinpleak
 - Gizon bat zuhaitz batean jesarrita ikusi dezakegu
 - Autore honek "Ez Dok Amairu" proiektuko hainbat disketako azalak egin ditu
 - Informaziorik ez autoreari buruz



- **Bakarlaria/Taldea:** Etxamendi eta Larralde
- **Diskoaren izenburua:** Joseba Elosegiri
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1971
- **Azalaren egilea:** Arrosa
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Joseba Elosegik bere buruari su eman zion momentuan oinarritutako marrazkia
 - Kutsu politikoa du
 - Sarean ez dago azalaren egileari buruzko informazioa




- **Bakarlaria/Taldea:** Urretxindorrek
- **Diskoaren izenburua:** Markesaren Alaba
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1971
- **Azalaren egilea:** Iñaki Landa
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informaziorik
 - Itsasoari begira dagoen neskatila ikusi dezakegu
 - Aurelio Artetaren lanak gogorarazten digu
 - Euskal gizartearen irudikapena



- **Bakarlaria/Taldea:** Urretxindorrek
- **Diskoaren izenburua:** Haurra seaskan
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1971
- **Azalaren egilea:** Iñaki Landa
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informaziorik
 - Gizon euskalduna eta haritzaren hostoak irudikatzen dira
 - Aurelio Artetaren lanak gogorarazten digu
 - Euskal gizartearen irudikapena




- **Bakarlarria/Taldea:** Etxamendi eta Larralde
- **Diskoaren izenburua:** Tiki-Taka
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1974
- **Azalaren egilea:** Arrosa
 - **Ezaugarri nabarmenenak:** Irudian, pertsonai bat asto baten gainean ikusi dezakegu
 - Sarean ez dago azalaren egileari buruzko informazioa



- **Bakarlarria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Bat-Hiru
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1974
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlarria/Taldea:** Antton Valverde
- **Diskoaren izenburua:** Bertso zaharrak
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1974
- **Azalaren egilea:** Felix Garrido (Jorge Oteiza-ren "Xenpelar" irudian oinarritutako konposizioa)
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Kolore gabekoa
 - Euskal artista ospetsu baten irudian oinarrituta dago.
 - "Xenpelar" bertsolariaren irudian oinarritutako lana da



- **Bakarlaria/Taldea:** Antton Valverde
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1975
- **Azalaren egilea:** Rosa Valverde
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Nekazal giroan kokatzen da
 - Irudi eta forma sinpleak
 - Kolore berdintsuak erabiltzen dira
 - Euskal Herriko nekazal eremuko paisaia eta gizartea islatzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Imanol
- **Diskoaren izenburua:** Lau Haizetara
- **Estiloa:** Herri kanta, Kantautorea
- **Urtea:** 1977
- **Azalaren egilea:** Rufino Vigil
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Sarean ez dago azalaren egilearen informazioa



- **Bakarlaria/Taldea:** Askoren artean
- **Diskoaren izenburua:** Bai Euskarari
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1978
- **Azalaren egilea:** Nestor Basterretxea
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Kutsu politikoa duen obra da
 - Euskal margolari eta eskultore oso garrantzitsua da egilea



- **Bakarlaria/Taldea:** Imanol
- **Diskoaren izenburua:** Sentimenduen Hauspoz
- **Estiloa:** Herri kanta, kantautorea
- **Urtea:** 1979
- **Azalaren egilea:** Irrintzi Kolektiboa
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Kolektibo bat agertzen zaigu azalaren egile bezala
 - Hainbat marrazki osatzen dute obra



- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Lau-Bost
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1980
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Imanol
- **Diskoaren izenburua:** Iratze Okre Geldiak
- **Estiloa:** Herri kanta, kantautorea
- **Urtea:** 1982
- **Azalaren egilea:** Rafael Ruiz Balerdi
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Obra abstraktua da
 - Artistak asko landu zuen estilo hau
 - Konposizio abstraktua eta oso koloretsua



- **Bakarlarria/Taldea:** Hertzainak
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Punka, Rocka, Ska
- **Urtea:** 1984
- **Azalaren egilea:** Curro, Iñurrieta eta Simonides
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Oso sinplea eta kolore gabekoa izar gorria izan ezik




- **Bakarlarria/Taldea:** Zarama
- **Diskoaren izenburua:** Indarrez
- **Estiloa:** Punka, Rocka
- **Urtea:** 1984
- **Azalaren egilea:** Gabriel Vecino
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Collage estiloa lantzen da
 - Pop-artarekin lotu daitekeen konposizioa da
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informazioa




- **Bakarlarria/Taldea:** Kortatu
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Punka, Rocka, Ska
- **Urtea:** 1985
- **Azalaren egilea:** Manolo Gil
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Aizkolaria agertzen da
 - Egileak hainbat lan argitaratu ditu talde honekin
 - Argazkigintza lana dela esan dezakegu, marrazkirik ez baita agertzen.



- **Bakarlaria/Taldea:** Urko
- **Diskoaren izenburua:** Gora gure errege
- **Estiloa:** Kantautorea
- **Urtea:** 1985
- **Azalaren egilea:** Mikel Artieda
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Urkorekin berarekin jotzen duen musikaria da azalaren egilea
 - Ez da kolorerik erabiltzen eta marrazki sinpleak dira



- **Bakarlaria/Taldea:** Guk/Eneko Laberie
- **Diskoaren izenburua:** Gerlarik ez
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1987
- **Azalaren egilea:** Jose Felix Igartua
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Igartuaren "Forjalari" obra da
 - Euskal lanbide tradizionalak marraztu zituen autoreak
 - Estilo figuratiboa baina aldi berean kubismoaren eragina ikusi daiteke



- **Bakarlaria/Taldea:** Hertzainak
- **Diskoaren izenburua:** Salda Badago
- **Estiloa:** Punka, Rocka, Ska
- **Urtea:** 1988
- **Azalaren egilea:** Alfredo Alvarez Plagaro
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Marrazki ugari ikusi daitezke eta forma sinpleak dituzte
 - Autoreak 80garren hamarkadan estilo honetako artelanak egiten zituen



- **Bakarlaria/Taldea:** Kortatu
- **Diskoaren izenburua:** A Frontline Compilation: Rock In The Basque Country
- **Estiloa:** Punka, Rocka, Ska
- **Urtea:** 1988
- **Azalaren egilea:** Manolo Gil
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Kutsu politikodun azala
 - Sarean ez dago azalaren egileari buruzko informazioa



- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Lekeitioak
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1988
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu




- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** 12
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1989
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Negu gorriak
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Hardcorea, Rocka, Rapa
- **Urtea:** 1990
- **Azalaren egilea:** Manolo Gil
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Fermin Muguruzarekin aurrerago lan egin duen artista da
 - Kutsu politikoa du
 - Kolore gorria eta zuria soilik erabiltzen dira
 - Gai belikoa



- **Bakarlaria/Taldea:** Gontzal Mendibil
- **Diskoaren izenburua:** Zu Zeu
- **Estiloa:** Herri kanta, kantautorea
- **Urtea:** 1990
- **Azalaren egilea:** Fabian Akarregi
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Azal oso koloretsua eta pintzeladak nabaritzen dira
 - Sarean autoreari buruzko informazioirik ez dago




- **Bakarlaria/Taldea:** Etsaiak
- **Diskoaren izenburua:** Amen
- **Estiloa:** Hardcorea
- **Urtea:** 1991
- **Azalaren egilea:** ezezaguna
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Guda zibileko UGTren kartel batean oinarrituta
 - Kutsu politikoa du



- **Bakarlarria/Taldea:** Su Ta Gar
- **Diskoaren izenburua:** Jaiotze Basatia
- **Estiloa:** Metala
- **Urtea:** 1991
- **Azalaren egilea:** Manolo Gil
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Autorea beste hainbat talderekin lan egin du (Kortatu, Negu gorriak)
 - Sarean ez dago autoreari buruzko informazioa



- **Bakarlarria/Taldea:** Balerdi Balerdi
- **Diskoaren izenburua:** Homonimoa
- **Estiloa:** Pop-rocka
- **Urtea:** 1991
- **Azalaren egilea:** Mauro Entrialgo
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Euskal komikigile ezagunak egin
 - Estilo naturala eta begiarekiko sinplea
 - Autoreak bere komikietan erabiltzen dituen estiloko marrazkiak erabiltzen ditu.




- **Bakarlarria/Taldea:** Imanol
- **Diskoaren izenburua:** Barne Kanta
- **Estiloa:** Herri musika, Kantautorea
- **Urtea:** 1994
- **Azalaren egilea:** Eduardo Txillida
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Txillidaren estiloa ondo irudikatzen duen azala da.
 - Espazioarekin jokatzeari du helburu (hutsunearekin eta osotasunarekin)
 - Irudi sinpleak eta kolore gabekoak




- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** 14
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1994
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Negu gorriak
- **Diskoaren izenburua:** Ideia Zabaldu
- **Estiloa:** Hardcorea, Rocka, Rapa
- **Urtea:** 1995
- **Azalaren egilea:** Manolo Gil
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Fermin Muguruzarekin lan egin duen artista da
 - Irudi tribalak eta euskal ikurrak (lauburua, arrano beltza) batzen dira
 - Kultura ezberdinetako elementuak nahastu




- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Zuzenean
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1997
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Su Ta Gar
- **Diskoaren izenburua:** Agur Jauna Gizon Zuriari
- **Estiloa:** Metala
- **Urtea:** 1997
- **Azalaren egilea:** Su Ta Gar
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Taldea bera da azalaren egilea
 - Gero eta baliabide gehiago daude bakoitzak bere azalak sortzeko
 - Ordenagailuaren bidez egindako lana



- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Gernika-Zuzenean 2
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 1999
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Imanol
- **Diskoaren izenburua:** Ausencia
- **Estiloa:** Herri kanta, Kantautorea
- **Urtea:** 2000
- **Azalaren egilea:** ezezaguna
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Ez dakigu nor den egilea
 - oso konposizio sinplea eta trazua



- **Bakarlarria/Taldea:** Betagarri
- **Diskoaren izenburua:** Remix
- **Estiloa:** Rocka , Ska
- **Urtea:** 2001
- **Azalaren egilea:** ezezaguna
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - "Royal" markako arto-irinaren irudian oinarritutako irudia da
 - Pop-arteko eragina izan dezake




- **Bakarlarria/Taldea:** Ken zazpi
- **Diskoaren izenburua:** Atzo da bihar
- **Estiloa:** Pop-rocka
- **Urtea:** 2001
- **Azalaren egilea:** Ken zazpi eta Jabi Leke
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Gaur egungo lanak (azal hau bezala) ordenagailuaren bidez egiten dira
 - Azala taldeak berak diseinatu du gero eta baliabide gehiago daudelako



- **Bakarlarria/Taldea:** Etsaiak
- **Diskoaren izenburua:** Kaos
- **Estiloa:** Hardcorea
- **Urtea:** 2001
- **Azalaren egilea:** Aitor Ibarra eta Dani Aizpurua (Picassoren Gernikan oinarrituta)
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Picassoren "Gernika" artelanean oinarritutako lana da
 - Hainbat moldaketa egin zaizkio musika estiloari egokitzeko asmoz (kitarrak, pertsonaien ileak...)



- **Bakarlaria/Taldea:** Morau
- **Diskoaren izenburua:** Txukalda
- **Estiloa:** Folka, Kantautorea, Pop-rocka
- **Urtea:** 2004
- **Azalaren egilea:** Aitziber Elortza, Iñaki Martiarena "Mattin" (marrazkiak)
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Autorea komikigilea da
 - Bere estiloa ilustrazio modernoagoa da edota komikietan agertzen diren marrazkiak izaten dira



- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Xoriek 17
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 2005
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Mikel Laboa
- **Diskoaren izenburua:** Lekeitioak
- **Estiloa:** Herri kanta
- **Urtea:** 2007
- **Azalaren egilea:** Jose Luis Zumeta
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Laboaren ia disko guztietako azalak Zumetak egin zituen
 - Oso estilo ezberdinak erabiltzen ditu azal bakoitzean
 - Abstrakzioa lantzen du
 - Kolore deigarriak erabiltzen ditu



- **Bakarlaria/Taldea:** Gose
- **Diskoaren izenburua:** III
- **Estiloa:** Elektronikoa
- **Urtea:** 2009
- **Azalaren egilea:** Gose
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Azala taldeak berak diseinatu du gero eta baliabide gehiago eskura daudelako
 - Irudi sinpleak eta kolore gutxi erabiltzen dira



- **Bakarlaria/Taldea:** Berri txarrak
- **Diskoaren izenburua:** Haria
- **Estiloa:** Metala, Rocka
- **Urtea:** 2011
- **Azalaren egilea:** Galder Izagirre, David Gonzalez (taldekideak)
- **Ezaugarri nabarmenenak:**
 - Argazkigintzari lotutako konposizioa
 - Azala taldeak berak diseinatu du gero eta baliabide gehiago eskura daudelako

3. ERANSKINA: IRAKASLEEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK

ELKARRIZKETA: ESTI ARRIZABALAGA

1. Izena, adina, nor zaren / zer irakasten duzun (musika tresna, arloa...)

Esti Arrizabala naiz ondarrutarra naiz 48 urte ditut. 25 urte daramatzat Bermeoko musika eskolan eskolak ematen. Nire arloak hizkuntza musikala eta koroak dira. Musika eskolan 3 maila daude eta horretatik lehenengoko mailan (4-6 urte bitarteko ikasleak) musika eta mugimendua ematen ditut eta gainerako mailatan hizkuntza musikala. Honetaz gain, hiru koro zuzentzen ditut: ume txikienekin, tarteko umeekin eta Bermeoko emakumeen elkarteko korua (Erroxape abesbatza). Gainera, urte honetan zaharren egoitzan modulu berri bat ematen hasi naiz musika tailerra izenarekin. Piano ikasketak burutu nituen baina ez naiz pianoko irakaslea. Halaber, nire eskoletan baliabide gisa erabiltzen dut.

2. Euskal kantagintzako materialak biltzen eta gordetzen dituen euskarri fisiko edo birtualik ezagutzen al duzu? (liburuak, plataformak, web orrialdeak, blogak, CD-ak...). Hauek zer eskaintzen dute?

Bai hizkuntzan musikaleko klaseetan zein musika eta mugimenduko klaseetan nire ardatza kantua da eta honen bidez beste hainbat arlo lantzen ditut (dantza, koreografia, instrumentuak...). Erakusten ditudan abesti guztiak euskarazkoak dira noski. Euskal kantagintza batez ere koruan erabiltzen ditut eta urtero prestatzen ditudan errepertorioan euskal kantagintzako 5 edo 6 abesti egoteaz arduratzen naiz. Umeekin lantzeko hainbat material daude adibidez, Urtxintxak ateratakoak, CD-ak...hainbat material maneiatzen ditut eskolak emateko. Umeekin lan egiten dudanean material hori (letrak, historia...) moldatzen ditut honela haiek ulertu dezaten. Asko erabiltzen ditut ere euskal taldeek sortzen ari diren azken nobedadeak, adibidez, Oreka TX, Kepa Junkera...

3. Badok ataria zer den eta zer eskaintzen duen ba al dakizu?

Bai, zeozer bai Berria egunkariaren euskal kantagintzaren ataria dela badakit baina, ez dut inoiz erabili.

4. Euskal kantagintzaren inguruko ezagutzarik baduzu? (abestiak, historia, pertsonaiak, abeslariak...). Nola jaso duzu ezagutza hori? (liburuen bidez, autodidakta zara, plataformen bidez, familia edo inguruan oso zabalduak daude...).

Txikitatik asko edan dut euskal kantagintza. Etxean beti izan ditut honen inguruko CD-ak eta nire amak asko entzuten zuen Bizkaia Irratia. Ni ere oso kantuzalea izan naiz eta kuriositatez ezagutzak biltzen joan naiz urteetan zehar.

5. Euskal kantagintzari buruzko edukiak irakastea garrantzitsua dela uste duzu? Ikuspegi pedagogiko batetik, zein onura izan dezake edo zer ikasi daiteke euskal kantagintzaren bidez? (zertarako irakatsi? musika bera ikasteko, euskal kultura transmititzeko, ondare musikala ezagutzeko, musika ez den beste arlo batzuetako edukiak lantzeko...).

Bai, duda barik. Lehen esan dudanez nire jarduneko ejea kantua da eta euskarazko kantuak erabiltzen ditut gehienbat. Kantuaren bidez beste hainbat arlo lantzen ditut: koreografiak asmatzeko, letrak erakusten, antzeki itxura ematen, instrumentu txikiak sartzan... Honetaz gain, askotan saiatzen naiz kantu bat erakusterakoan anekdota txikiak sartzan, hau da, kantu bakoitzaren historia kontatzen diet ikasleei honela beste modu batera sartzeko abestian. Honen bidez, abestien eta euskal kulturaren eta istorioen transmisioa dago ere. Nire ustez gauza hauek ezin ditugu galdu eta guk, musika eskoletatik, transmisioaren betebeharrak hori dugu. Paper hori, beste eskala baten eskolatik ematen dela ere ikusten ditut.

6. Zure eguneroko jardunean (musikari edota musika eskolako irakasle bezala), zer nolako presentzia dauka euskal kantagintzak? Zenbaterainoko garrantzia dauka musika honek, beste musika motekin alderatuz? (Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera).

Nire jardunaren %70a edo %80a euskal kantugintzako abestiak izaten dira. Euskal Herriko musikagintza ikasleei hurbiltzen saiatzen naiz.

7- Musika eskolan, euskal kantagintza lantzerakoan zer nolako materialak erabiltzen dituzu (partiturak, bideoak, audioak...)? Nondik ateratzen dituzu material horiek? erabiltzen al dira Badok bezalako plataformak? Estrategia didaktiko berezirik erabiltzen duzu musika mota hau lantzerakoan? (Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera).

Internet-etik ateratzen ditut partiturak, adibidez, kantua.net web orrialdetik. Honetaz gain, askotan CD-etatik belarriz ateratzen ditut melodiak eta gero akordeak asmatu. Gaur egun hainbat baliabide daude materiala lortzeko baina, Badok ez ditut inoiz erabili. Lehen esan dudanez, askotan umeekin euskal kantagintza lantzeko abestiak moldatzen ditut, adibidez, Lapurdiko kantu bateko letra gurera ekartzen ditut eta sinonimoen bidez gure hizkerara moldatzen ditut.

Egoeraren arabera abesti bat edo beste bat aukeratzen ditut nahi dudana edozer lantzeko, adibidez, eremu bateko hizkera, lengoia musikaleko elementu desberdinak... Askotan autoreari buruzko informazio ematen diet ikasleei edota argazkiekin osatzen ditut klaseak.

8. Gaur egungo eskoletan (batik bat lehen hezkuntzan), euskal kantagintzak zer nolako presentzia duela uste duzu? (nahikoa, txikia, gehiago behar luke) Zein puntutaraino baloratzen da musika mota hau, beste musikekin alderatuz? (**Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera**).

9. Lehen hezkuntzan, euskal kantagintzaren inguruko material ezberdinak erabiltzen al dira (partiturak, bideoak, audioak...)? Eta Badok bezalako plataformarik? Errekurtso edota estrategia didaktiko berezirik erabiltzen al da? Euskal kantagintza, curriculumeko beste arlo batzuk lantzeko erabiltzen al da? (hizkuntza, plastika, artearen historia, euskal herriko historia..). (**Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera**).

Eskerrik asko!

ELKARRIZKETA: HAIMAR AREJITA

1. Izena, adina, nor zaren / zer irakasten duzun (musika tresna, arloa...)

Haimar Arejita naiz, gitarrajolea eta gitarra elektrikoko eta klasikoko irakaslea Gernikako Segundo Olaeta musika eskolan. Honetaz gain, Gatibu eta Espaloian taldeetako musikaria naiz. Gitarra klasikoko ikasketa profesionalak egin neban Gernikako Julia Foruria kontserbatorioan eta gitarra elektrikoa nire kabuz ikasi neban. Urte batzuk geroago gitarra elektrikoko klaseak emateko abilitazioa lortu neban eta magisteritza musikala ikasi neban Euskal Herriko Unibertsitatean.

2. Euskal kantagintzako materialak biltzen eta gordetzen dituen euskarri fisiko edo birtualik ezagutzen al duzu? (liburuak, plataformak, web orrialdeak, blogak, CD-ak...). Hauek zer eskaintzen dute?

Libururen eta kantutegiren bat ezagutzen dut baina, ez dut gogoratzen bere izena. Dena den, ez dut erabiltzen horrelako materialik. Euskal kantagintzaren inguruko zerbait lortu nahi badut internetera jotzen dut eta bertan aurkitzen ditut behar dudana materiala, bai partiturak bai audioak belarriz ateratzeko.

3. Badok ataria zer den eta zer eskaintzen duen ba al dakizu?

Bai, Berriaren euskal kantagintzaren ataria da eta zuzendaria, Jon Eskisabel, nire laguna da. Noizbait elkarrizketaren bat egin digute.

4. Euskal kantagintzaren inguruko ezagutzarik baduzu? (abestiak, historia, pertsonaiak, abeslariak...). Nola jaso duzu ezagutza hori? (liburuen bidez, autodidakta zara, plataformen bidez, familia edo inguruan oso zabalduak daude...).

Bai, euskal kantagintza klasikoa zein gaur egungoa. Ezagutza hori inguruaren eraginez heldu zaizkit, izan ere, euskal inguru baten bizi izan bainaiz.

5. Euskal kantagintzari buruzko edukiak irakastea garrantzitsua dela uste duzu? Ikuspegi pedagogiko batetik, zein onura izan dezake edo zer ikasi daiteke euskal kantagintzaren bidez? (zertarako irakatsi? musika bera ikasteko, euskal kultura transmititzeko, ondare musikala ezagutzeko, musika ez den beste arlo batzuetako edukiak lantzeko...).

Euskaldunak garen heinean gure sustraiak irakastea beharrezkoa dela uste dut. Historiako beste edozein arlo bezala nondik gatozen eta zer garen jakiteko balio digu. Musika kulturaren barnean dagoen adierazpen artistikoa da beraz, euskal kantagintza kulturaren transmiziorako balio digu. Honetaz gain, hizkuntza argi eta garbi landu daiteke. Hainbat abesti ere gure historiaren pasarteak azaltzen digute eta horien bidez gure historia ezagutu dezakegu.

6. Zure eguneroko jardunean (musikari edota musika eskolako irakasle bezala), zer nolako presentzia dauka euskal kantagintzak? Zenbaterainoko garrantzia dauka musika honek, beste musika motekin alderatuz? (Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera).

Ahalik eta euskal abesti gehien lantzen saiatzen naiz. Nire ustez hemen dugun ondare musikala ezagutzea oso garrantzitsua da eta hemengo talde berriak zein zaharrak ezagutzea ere. Dena den, gehiago egin ahal dudala uste dut. Askotan, mundu anglosajoko erreferentzietara jotzen dut bertan musikalki oso potenteak diren taldeak aurkitzen ditugulako. Haiek sortu zuten musika hau. Hemengo taldeei errenferentzia eginez, Itoiz taldearen bidez gauza asko lantzen ditut.

Orokorrean hitz eginez, nahi izango nukeena baino gitxiago lantzen dut euskal kantagintza eta erronka hori dut.

7. Musika eskolan, euskal kantagintza lantzerakoan zer nolako materialak erabiltzen dituzu (partiturak, bideoak, audioak...)? Nondik ateratzen dituzu material horiek? erabiltzen al dira Badok bezalako plataformak? Estrategia didaktiko berezirik erabiltzen

duzu musika mota hau lantzerakoan? (**Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera**).

Gehien erabiltzen dugun formatua audioa da, etxean ditudan CD-ak edo interneten aurkitu ditzakegunak. Gehien erabiltzen dudana web orrialdea Youtube da. Badok ataria egia esan ez dut inoiz erabili. Euskal kantagintza beste edozein musika bezala lantzen dut, ez diot tratamendu berezirik ematen. Naturaltasun osoz erabiltzen dut. Dena den, abesti bat lantzerakoan taldearen inguruko informazioa ematen diot ikasleari eta talde hori buruzko ikerketa txiki bat egiten dugu (historia, diskoak, bere abestiak ezagutu eta horietako asko ikasi...).

8. Gaur egungo eskoletan (batipat lehen hezkuntzan), euskal kantagintzak zer nolako presentzia duela uste duzu? (nahikoa, txikia, gehiago behar luke) Zein puntutaraino baloratzen da musika mota hau, beste musikekin alderatuz? (Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera).

9. Lehen hezkuntzan, euskal kantagintzaren inguruko material ezberdinak erabiltzen al dira (partiturak, bideoak, audioak...)? Eta Badok bezalako plataformarik? Errekurtso edota estrategia didaktiko berezirik erabiltzen al da? Euskal kantagintza, curriculumeko beste arlo batzuk lantzeko erabiltzen al da? (hizkuntza, plastika, artearen historia, euskal herriko historia..). (Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera).

Eskerrik asko!

ELKARRIZKETA KEU AGIRRETXEA

1. Izena, adina, nor zaren / zer irakasten duzun (musika tresna, arloa...)

Keu Agirretxea naiz, ondarrutarra naiz eta 42 urte ditut. 16 urte daramatzat hezkuntza munduan musika eskoletan. Gitarra elektrikoa irakasten dut Bermeoko, Ondarroako eta Mendaroko musika eskoletan. Honetaz gain hainbat taldetan ibili naiz (Etsaiak, Fjord, Uek, Governors...) eta gaur egun nire bakarkako proiektuko 4 diskoa aurkezten nabil.

2. Euskal kantagintzako materialak biltzen eta gordetzen dituen euskarri fisiko edo birtualik ezagutzen al duzu? (liburuak, plataformak, web orrialdeak, blogak, CD-ak...). Hauek zer eskaintzen dute?

Ez dut ezagutzen materialik. Orain dela urte batzuk aho bete kanta proiektua sortu zen eta euskal kantagintzaren inguruko materialak biltzen zituen baina, ez dut inoiz erabili. Askotan euskal taldeen inguruko materiala faltan botatzen dut.

3. Badok ataria zer den eta zer eskaintzen duen ba al dakizu?

Bai, Jon Eskisabelek zuzentzen duen ataria da. Oso interesgarria da eta noizbait bertan sartu naiz.

4. Euskal kantagintzaren inguruko ezagutzarik baduzu? (abestiak, historia, pertsonaiak, abeslariak...). Nola jaso duzu ezagutza hori? (liburuen bidez, autodidakta zara, plataformen bidez, familia edo inguruan oso zabalduak daude...).

Bai, gaztea nintzala Ondarruko Akeita tabernan ezagutu nituen euskal kantagintzako hainbat abeslari. Nire etxean ez dira inoiz oso kantuzaleak izan beraz, beste iturri batzuetatik heldu zaizkit euskal kantagintza, adibidez, irratia edo ETBko saio ezberdinak. Gaur egun ikasleengandik ere hainbat talde heltzen zaizkit.

5. Euskal kantagintzari buruzko edukiak irakastea garrantzitsua dela uste duzu? Ikuspegi pedagogiko batetik, zein onura izan dezake edo zer ikasi daiteke euskal kantagintzaren bidez? (zertarako irakatsi? musika bera ikasteko, euskal kultura transmititzeko, ondare musikala ezagutzeko, musika ez den beste arlo batzuetako edukiak lantzeko...).

Dudarik gabe, musikaz gain gure kulturaren aldetik eta euskararen aldetik ere. Abertzaletasuna alde batera utzita ere, gure musikariak ere kalitatezkoak direla uste dut. Gaur egun baditugu internazionalki ezagunak diren taldeak eta musikariak eta honek, mundura zabaltzen gaitu. Honen adibide dugu Mikel Laboaren pianojolea izaniko Iñaki Salvador, Berri Txarrak, Fermin Muguruza, jazz munduko jendea (Carlos Velasco, Asier Oleaga, Miguel Salvador, Jon Piris...). Askotan kanpora jotzen dugu eta gure inguruan ere kalitatezko musika eta musikariak ditugu.

6. Zure eguneroko jardunean (musikari edota musika eskolako irakasle bezala), zer nolako presentzia dauka euskal kantagintzak? Zenbaterainoko garrantzia dauka musika honek, beste musika motekin alderatuz? (Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera).

Ez dut asko lantzen, batez ere, materialik ez dagoelako. Gainera, eskola askotan lan egiten dudanez ez dut denborarik materiala sortzeko. Beraz, arin lortu dezakedan kalitatezko materiala behar dut. Gustatuko litzaidake euskal abestien inguruko materialak izatea.

7. Musika eskolan, euskal kantagintza lantzerakoan zer nolako materialak erabiltzen dituzu (partiturak, bideoak, audioak...)? Nondik ateratzen dituzu material horiek? erabiltzen al dira Badok bezalako plataformak? Estrategia didaktiko berezirik erabiltzen

duzu musika mota hau lantzerakoan? (**Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera**).

Gitarra klasikorako euskal abestien liburu bat dut baina, nire ikasleak zaintzea gustatzen zait eta askotan haien gustoa errespetatzen ditut. Beraz, euskal kantagintzaz gain, munduko beste hainbat musika lantzen ditut haiek eskatzen didatelako. Gehienbat interneten lortzen ditut erabiltzen ditudan materialak. Aurrerago esan dudana bezala Badok ezagutzen dut baina ez dut erabiltzen. Euskal kantagintzaren inguruko materialik ez dagoenez, askotan, belarriz atera behar ditut lantzen ditudan abestiak.

8. Gaur egungo eskoletan (batipat lehen hezkuntzan), euskal kantagintzak zer nolako presentzia duela uste duzu? (nahikoa, txikia, gehiago behar luke) Zein puntutaraino baloratzen da musika mota hau, beste musikekin alderatuz? (**Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera**).

9. Lehen hezkuntzan, euskal kantagintzaren inguruko material ezberdinak erabiltzen al dira (partiturak, bideoak, audioak...)? Eta Badok bezalako plataformarik? Errekurtso edota estrategia didaktiko berezirik erabiltzen al da? Euskal kantagintza, curriculumeko beste arlo batzuk lantzeko erabiltzen al da? (hizkuntza, plastika, artearen historia, euskal herriko historia...). (**Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera**).

Eskerrik asko!

ELKARRIZKETA: JON GURRUTXAGA

1. Izena, adina, nor zaren / zer irakasten duzun (musika tresna, arloa...):

Jon Gurrutxaga, 37 urte, elgoibartarra, musikaria, kazetaritzan lizentziatua, gaur egun Lehen Hezkuntzan irakasle Elgoibar ikastolan. Ikasturte honetan ingelesa, musika eta gaztelaniako arloak ematen ditut. Perkusio eta bateriako irakasle tituluak ditudan arren, ingelesekoa da nire Lehen Hezkuntza irakasle titulua.

2. Euskal kantagintzako materialak biltzen eta gordetzen dituen euskarri fisiko edo birtualik ezagutzen al duzu? (liburuak, plataformak, web orrialdeak, blogak, CD-ak...). Hauek zer eskaintzen dute?

Euskarri digitalak nahiz fisikoak ezagutzen eta erabiltzen ditut.

Euskarri fisikoei dagokionez, hauek dira gehien ezagutzen ditudanak:

- Disko fisikoak, taldeei zuzenean kontzertuetan erosita.
- Musikari buruzko liburuak: “5eko haria” poltsiko liburu bilduma, adibidez, besteak beste, Itoiz, Jo ta Kie... bezalako musikarien biografiak aurki ditzakegu bertan.
- Durangoko azoka, orokorrean.

- Entzun aldizkaria

Euskarri birtualei dagokionez:

- Musikarien eta taldeen bandcamp web orriak (www.bandcamp.com): Bertan zuzenean kantuak entzun eta erosteko edota dohainik deskargatzeko (aukera hori musikariak erabakitzen du) parada dugu.

- Diskoetxeen webguneak eta beraien katalogoak.

- Musika zuzenean ataria (www.musikazuzenean.com): Kontzertuen agendak, bideoak, argazkiak...

- Badok ataria (www.badok.eus): Euskal musikaren inguruko ataria, bertan musikarien informazioa, diskografiak, azken berriak, bideoak, singleak etab. aurki daitezke.

- Youtube

3. Badok ataria zer den eta zer eskaintzen duen ba al dakizu?

Bai, aurreko galderan erantzun dudan bezalaxe, dexente erabiltzen dudan ataria da.

4. Euskal kantagintzaren inguruko ezagutzarik baduzu? (abestiak, historia, pertsonaiak, abeslariak...). Nola jaso duzu ezagutza hori? (liburuen bidez, autodidakta zara, plataformen bidez, familia edo inguruan oso zabalduak daude...).

Euskal kantagintzaren inguruko lehen ezagutzak etxean bertan jasoko nituen seguruenik familiaren bitartez. Eta ondoren, ikastolan bertan, euskal kantak ikasi eta abesteko ohitura handia genuen. Ondoren, poliki-poliki aldizkari, liburu, irrati eta telebistan jasotakoa.

5. Euskal kantagintzari buruzko edukiak irakastea garrantzitsua dela uste duzu? Ikuspegi pedagogiko batetik, zein onura izan dezake edo zer ikasi daiteke euskal kantagintzaren bidez? (zertarako irakatsi? musika bera ikasteko, euskal kultura transmititzeko, ondare musikala ezagutzeko, musika ez den beste arlo batzuetako edukiak lantzeko...).

Euskal kantagintzari buruzko edukiak irakastea garrantzitsua deritzot bai, ez bakarrik alde musikalagatik bakarrik, baita euskal kultura transmititzeko ere. Gainera, Euskal Herrian hainbat musika estilo ezberdin euskaraz lantzen direla erakustea ere oso garrantzitsua dela uste dut. Modu horretara, ikasleek edozein musika estilo gustuko dutela ere, euskaraz sortu dezaketela ikusiko baitute. Beraz, euskal kantagintza edo musikagintza musikako arloarekin eta euskarako arloarekin lotuta dagoela pentsatzen dut. Eta horrela lantzen dugu.

6. Zure eguneroko jardunean, zer nolako presentzia dauka euskal kantagintzak? Zenbaterainoko garrantzia dauka musika honek, beste musika motekin alderatuz?

Aurreko galderan erantzuten nuen bezalaxe, euskal kantagintzak edo musikagintzak ez du hainbesteko lotura musika motarekin gaur egun, edota ez luke izan beharko. Eguneroko jardunean badu presentzia gure musikak, tarteka egungo taldeen single berrietako klipak jartzen dizkiet ikasleei, baita kantu zaharrak ere, lantzen ari garen musika partituren arabera. Horrez gain, musika antolatzailea ere banaizenez, hilero herrian antolatzen ditugun kontzertuen berri ere ematen diet ikasleei eta joko duen taldearen bideoren bat jarri.

7- Eskolan, euskal kantagintza lantzerakoan zer nolako materialak erabiltzen dituzu (partiturak, bideoak, audioak...)? Nondik ateratzen dituzu material horiek? erabiltzen al dira Badok bezalako plataformak? Estrategia didaktiko berezirik erabiltzen duzu musika mota hau lantzerakoan?

Eskolan erabiltzen dugun materialak berak (liburu fisikoak nahiz birtualak) bideratzen gaitu askotan hainbat bideo eta audiotara, horiek batzuetan youtube-en aurki ditzakegu eta beste batzuetan web-ean bertan dauzkagu. Horrez gain, urtean zehar euskal kultura eta musikarekin loturiko hainbat ekintza berezi ditugu: Santa Zezilia edota Musikarien Eguna, Euskararen Eguna, Olentzero Eguna, Inauteriak, Santa Ageda. Beraz, horretarako prestatuta ditugu hainbat kantu eta partitura. Horretarako, adibidez, www.urtesasioak.com atarira jotzen dugu, besteak beste. Momentuz gutxi erabili izan dut Badok ataria, baina ikasleei azaldu zaie zer den eta nola erabili dezaketen. Guzti honez gain, gela bakoitzak pare bat familiei zuzendutako pare bat erakustaldi egiten ditu ikasturtean eta horretarako ere hainbatetan gauza bereziak sortzen dira.

8. Gaur egungo eskoletan (batipat lehen hezkuntzan), euskal kantagintzak zer nolako presentzia duela uste duzu? Zein puntutaraino baloratzen da musika mota hau, beste musikekin alderatuz?

Gure aldetik, ikastola bat garen heinean, betidanik landu izan da euskal kantagintzaren transmisioa eta oraindik horretan jarraitzen dugu.

9. Lehen hezkuntzan, euskal kantagintzaren inguruko material ezberdinak erabiltzen al dira (partiturak, bideoak, audioak...)? Eta Badok bezalako plataformarik? Errekurtso edota estrategia didaktiko berezirik erabiltzen al da? Euskal kantagintza, curriculumeko beste arlo batzuk lantzeko erabiltzen al da? (hizkuntza, plastika, artearen historia, euskal herriko historia.

Galdera aurrekoetan erantzun dudala uste dut.

ELKARRIZKETA: BIHOTZ FRADUA

1. Izena, adina, nor zaren / zer irakasten duzun (musika tresna, arloa...)

Ni Bihotz Fradua naiz 47 urte ditut eta orain dela 22 urte hasi nintzen Bermeoko Eleizalde ikastolan musikako eskolak ematen. Ikastola honetan LH 5. mailatik DBH 4. maila arte ematen ditut eskolak. Pianoko erdi mailako titulua dut eta gero Musikenen lizentziatu nintzen.

2. Euskal kantagintzako materialak biltzen eta gordetzen dituen euskarri fisiko edo birtualik ezagutzen al duzu? (liburuak, plataformak, web orrialdeak, blogak, CD-ak...). Hauek zer eskaintzen dute?

Gehien erabiltzen ditudan materialak web orrialdeak dira, adibidez, Badok ataria edo Gabi de la Mazaren materialak. Nik musika digitalizatuta ditut. Honetaz gain, betiko liburuak eta materialak ditut.

3. Badok ataria zer den eta zer eskaintzen duen ba al dakizu?

Bai ezagutzen dut eta bere esteka gure blogan txertatuta dut.

4. Euskal kantagintzaren inguruko ezagutzarik baduzu? (abestiak, historia, pertsonaiak, abeslariak...). Nola jaso duzu ezagutza hori? (liburuen bidez, autodidakta zara, plataformen bidez, familia edo inguruan oso zabalduak daude...).

Bai, inguru euskaldunean bizi naiz eta betidanik ezagutu ditut hainbat abesti gainera, nire kabuz beste hainbat ezagutzen joan naiz.

5. Euskal kantagintzari buruzko edukiak irakastea garrantzitsua dela uste duzu? Ikuspegi pedagogiko batetik, zein onura izan dezake edo zer ikasi daiteke euskal kantagintzaren bidez? (zertarako irakatsi? musika bera ikasteko, euskal kultura transmititzeko, ondare musikala ezagutzeko, musika ez den beste arlo batzuetako edukiak lantzeko...).

Nire ustez norberaren kultura ezin da galdu, horregatik, txikitatik ezagutu eta landu behar da. Musikaz gain gure musikariak ere ezagutzea garrantzitsua dela uste ditut. Abestiek zeri buruz hitz egiten duten eta bere testuinguruan kokatzen jakitea ere oso garrantzitsua da.

6. Zure eguneroko jardunean (musikari edota musika eskolako irakasle bezala), zer nolako presentzia dauka euskal kantagintzak? Zenbaterainoko garrantzia dauka musika honek, beste musika motekin alderatuz? (Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera).

7. Musika eskolan, euskal kantagintza lantzerakoan zer nolako materialak erabiltzen dituzu (partiturak, bideoak, audioak...)? Nondik ateratzen dituzu material horiek? erabiltzen al dira Badok bezalako plataformak? Estrategia didaktiko berezirik erabiltzen duzu musika mota hau lantzerakoan? (Musikari eta musika eskoletako irakasleentzako galdera).

8. Gaur egungo eskoletan (batipat lehen hezkuntzan), euskal kantagintzak zer nolako presentzia duela uste duzu? (nahikoa, txikia, gehiago behar luke) Zein puntutaraino baloratzen da musika mota hau, beste musikekin alderatuz? (Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera).

Aste batean ordu bat bakarrik izatea ez du laguntzen baina, kurtso bakoitzean hiruhilebete bat gitxienez, euskal kantagintza lantzen ematen dugu. Honen inguruan proiektu desberdinak egiten ditugu (ikerketak, abestiak aldatu edo gaurkotu...). Nire eskolan euskal kantagintzak badu presentzia handia gainera, ikastolak hau bultzatzen du. Askok bultzatzen da. Honetaz gain munduko beste musikak ere lantzen dira.

9. Lehen hezkuntzan, euskal kantagintzaren inguruko material ezberdinak erabiltzen al dira (partiturak, bideoak, audioak...)? Eta Badok bezalako plataformarik? Errekurtso edota estrategia didaktiko berezirik erabiltzen al da? Euskal kantagintza, curriculumeko beste arlo batzuk lantzeko erabiltzen al da? (hizkuntza, plastika, artearen historia, euskal herriko historia..). (Lehen hezkuntzako maisu/maistrentzako galdera).

Gaur egun interneten denetarik aurkitu dezakegu eta nik musika guztia digitalizatuta ditut. Bertan aurkitzen ditut material guztiak. Badok asko erabiltzen dut ikerketa txikiak egiteko, adibidez, ikasleek ikerketaren bat egin behar badute Badok-era jotzen dute. Honetaz gain, euskal musikaren aberastasuna ikusteko ere balio digu. Nire ustez euskal kantagintzaren inguruan lan egiteko oso tresna baliogarria da. Gure musikaren eta sormenaren bidez, curriculumeko edozein gauza landu dezakegu. Abesti bakar baten bidez curriculumeko beste hainbat aspektu landu ditzakegu (historia, hizkuntza, gizarte...).

Eskerrik asko!